



EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA ARABAKO MENDIALDEKO KUADRILLAN

2017ko abendua

AURKIBIDEA

1. AURKEZPENA

1.1. Sarrera

1.2. Metodologia

2. ARABAKO MENDIALDEAKO KUADRILARA BEGIRADA

2.1. Biztanleria

2.2. Emplegua eta sustapen ekonomikoa

2.3. ZAINKETA ERANTZUNKIDEAK

2.4. Hezkuntza eta Euskera

2.5. Emakumeen kontrako indarkeria

2.6. Osasuna

2.7. Kultura eta kirola

2.8. Ingurumena eta inguru iraunkorra

2.9. Kulturartekotasuna

2.10. Prekarietatea eta gizarte baztertzeara

2.11. Ahalduntzea eta berdintasun politikak

3. ARABAKO MENDIALDEAKO KUADRILARA BEGIRADA

3.1. Emakumeak erabakiak hartzeko eremuetan sartzea





1. ZATIA AURKEZPENA



1. SARRERA

1.1. Aurkezpena

Berdintasun printzipioa eta sexua dela eta edozein diskriminazio motaren berariazko debekua nazioarteko, Europako, estatuko eta autonomia mailako arau juridiko ezberdinetan jasota dauden arren, emakume eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra galarazten duten oztopo eta desberdintasun ugari daude oraindik. Beraz, oraindik ere garrantzitsua da emakume eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko mekanismo eta neurriak abiarazi eta sustatzea, maila guztietan eta tokiko bizitzaren eremu ezberdinetan.

Arabako beste koadriletan bezala (Gasteizko Kuadrillan izan ezik), 2016ko azaroan Arabako Mendialdeko Kuadrillak Berdintasun Teknikari bat kontratatu zuen arabar koadriletan berdintasun egiturak sortzeko diru-laguntzen deialdiaren bidez, berdintasun eremuko ekintzak egitea sustatzeko.

kuadrillako Berdintasun Zerbitzua sortu zenetik, kuadrillako Batzordeak emakume eta gizonen arteko berdintasunerako diagnostiko eta planifikazio estrategikoko prozesu bat abiaraztea onartu zuen. Horren bidez, kuadrilla mailako berdintasun eremuko tokiko politikak garatzeko udalerriz gaundiko eredu bat ezarriko da.

Prozesu hori Emakunderen diru-laguntzaren bidez finantzatu da, emakume eta gizonen arteko berdintasunerako diagnostikoak egiteko edota planak egin

eta ebaluatzeko beharrezko aholkularitza teknikoa ematera bideratutakoa.

kuadrillaren Berdintasunerako Lehenengo Plana egiteko lehenengo pausua, eta ezinbestekoa, emakume eta gizonen egoeraren ikuspegi globala eta ahalik eta eguneratuena islatu nahi duen diagnostiko hau egin da, bi mailatan: (1) kanpo-mailan, kuadrillako eguneroko errealitatearen gizarte, ekonomia eta eremu politiko ezberdinetan; eta (2) barne-mailan, kuadrillaren eta osatzen duten udalerrien barne antolaketan.

Era berean, diagnostiko honen bidez edozein erakundek - kasu honetan 6 udalerri barne hartzen dituen tokiko administrazio batek- modu estrategikoan erabili dezakeen eta bere erabakiak oinarritzen dituen beharra azpimarratu nahi da. Informazioaren eta ezagutzaren kudeaketa ezinbestekoak dira edozein administrazio publikoaren barruan eta haren politiketan genero ikuspegia sartzeko.

Abiapuntu horretatik, diagnostikoak kuadrillaren errealitate ezberdinen genero analisia egiteko eta ematen ari diren zerbitzu eta programa ezberdinek duten genero inpaktua identifikatzeko aukera ematen duen informazioa eta ezagutzaren kudeaketa ezartzeko lehenengo pausuak eman nahi ditu.

1. SARRERA

1.2. Metodologiaren ezaugarria

- ✓ Diagnostikoa egiteko erabilitako metodologia mistoa izan da, izaera kuantitatibo eta kualitatiboko teknikak partekatuz. Aldi berean eta denbora mugez gain, izaera parte-hartzailea eman nahi izan zaio, eremu zehatzetara zuzendutako eztabaida taldeak dinamizatuz. Horietan, teknikariek zein kuadrillan klabe diren eragileek parte hartu dute.
- ✓ Hauek izan dira diagnostikoaren prozesua bitartean erabilitako teknika ezberdinak eta kontsulta-iturri nagusiak:
- ✓ Datu estatistikoen analisia: Bildu beharreko datuen izaeraren arabera, informazio-iturri ezberdinak izan dira. Dena den, kasu askotan sexuaren arabera banatutako eta kuadrillarenak bakarrik diren datuak lortzeko zailtasuna izan dugu. Oraindik ez dira datu guztiak sexuen arabera edo beste aldagai batzuen arabera -adina, jaioterria edo nazionalitatea- banatzen. Horrek, kuadrillako errealitate zehatzaren analisia zailtzen du hein handi batean. Egoera hau kuadrillako barne-iturri eta udalerrietan zein kuadrillatik kanpoko iturrietan eman da.
- ✓ Kuadrila eta udalerrietako barne-dokumentazioaren analisia: Jarduera memoriak, ebaluazio txostenak, jarduera programak, etab. (eremu bakoitzean horien eskuragarritasunaren arabera).
- ✓ Erakunde klabeekin eta kuadrillako sail eta zerbitzu ezberdinetako teknikari arduradunekin erdi-egituratutako banakako zein taldeko elkarrizketak. Euskara teknikariak; Prebentzio Sozio-komunitarioko teknikariak; Animazio Soziokulturaleko teknikariak; Gizarte Langilea; kuadrillako Gerentea; Sustapen Ekonomikoko Zerbitzuko Teknikariak; “Mendialdea IPI” Gurasoen Elkartea.
- ✓ Kuadrilako Berdintasun Zerbitzuarekin alderatzeko edota itzultzeko bilerak.
- ✓ Informazio, gogoeta eta proposamenak jasotzeko eta horiek aztertzeko espazio kolektiboak ezartzeko gogoeta ekintza tailerrak. Udalerrietako politikariek egindako tailerra: “Kanpezuko” emakume elkartearekin egindako tailerra.
- ✓ “Kuadrila arteko” koordinazio saioak, Añanako eta Mendialdeko Koadrilen teknikari eta politikariek: kuadrilla arteko 2 saio, bat maila teknikoan eta bestea politiko/teknikoan.



2. ZATIA

ARABAKO MENDIALDEAKO KUADRILARA BEGIRADA DIAGNOSTIKORAKO ELEMENTUAK





2.1 BIZTANLERIA




2.1 BIZTANLERIA

2.1.1 Biztanleriaren eboluzio globala

kuadrillako politika publikoak zuzenduta dauden biztanleriaren ezaugarriak ezagutzeko ezinbestekoa da datu demoGrafikak aniztasunetik aztertzea (sexuaren, adinaren eta jatorriaren arabera). Analisi honek elkarrekin bizi diren errealitate aniztasuna ulertzeko aukera ematen du, eta ulermen horretatik horiei erantzuna eman. Era berean, joera demografikoen analisisian genero ikuspegia sartzea garrantzitsua da, lurraldean bizi diren emakume eta gizonen behar ezberdinak identifikatu ahal izateko.


Arabako Mendialdeko kuadrillak 485,30 kilometroko zabalera du eta 2016ko urtarrilaren 1ean 2.954 biztanle, 6 udalerrietan banatuta. Horien populazio dentsitatea 1. Grafikan adierazi da. Guztira, 1.268 emakume (%43) eta 1.656 gizon (%57). Datu hauek EAEkoekin alderatuta, kuadrillako emakumeak Euskadiko emakumeen ehunekoa baino %5,6 gutxiago direla ikus dezakegu (%51,4). Bestalde, 2011tik 2016ra kuadrillako biztanleria 214 pertsonetan gutxitu da, eta horietatik %52,3 emakumeak izan dira (112).

1. Grafika. Udalerrien biztanleriaren banaketa 2016ko urtarrilaren 1ean. (INE ateratako informazioa)




Datu hauek kuadrillako emakumeek, gizonek baino gehiago, beste geografia eremuetara joatea erabakitzen dutela adierazten dute. Egoera honen azalpen posible bat izan daiteke landa-eremuak ez dituela bertan jaiotako emakumeen garapen pertsonalerako eta lan garapenerako itxaropenak asetzen. Diagnostikoan ikus daitekeenez, arrazoietako bat mugikortasuna eta oinarritzko zerbitzu eta baliabideak eskuratzeko zailtasuna izan daiteke.

2. Grafika Mendialdeko biztanleria sexuaren arabera banatuta. 2016ko uratrillaren 1ean. (INETik ateratako informazioa)



3. Grafika Euskadiko biznleriaren garapena sexuaren arabera (Eustatetik ateratako informazioa)




2.1 BIZTANLERIA

Biztanleriaren piramidean ikus daitekeen bezala, 2016ko urtarilaren 1ean gizonen %59,5 eta emakumeen %40,5 35-69 urteen artean daude. Dena den, 80 urteetatik aurrera gizon baino emakume gehiago dago. Zehazki, emakumeen %13 inguru eta gizonen %8 inguru.

Bestalde, UDALMAPen datuen arabera (Grafika hurrengo orrialdean), 2016an 65 urtetik gorako biztanleen batz bestekoa %30,5 zen (zahartze indizea). Emakume eta gizonen arteko ezberdintasun adierazgarrienak zahartzearen gaineko indizearen batz bestekoan ematen dira (75 urtetik gorako populazioa), urte berean gizonentzat %14,97 eta emakumeentzat %18,80 delako. Aldi berean, haurren indizea (0-14 urte bitarteko pertsonen ehunekoa) %9,34 da. Horrek 2016an populazioaren dependentzia indizeak %73,33eko batz bestekoa lortzea dakar.


Beraz, kuadrillako populazioaren zahartze fenomenoak batez ere emakumeengan eragina duela ikus dezakegu. Egoera honek ondorio garrantzitsuak ditu genero desberdintasun terminoetan, ikerketa askoren arabera zahartzaroan desberdintasunak areagotzen direlako adineko emakumeen bizi-kalitatea eta ongizatean eragin negatiboa izateraino. Eta modu horretan adineko emakumeen bizitzan dependentzia, pobrezia, bakardade, isolamendu eta gizarte babesgabetasun maila handiagoa ematen da.

4. Grafika. Biztanleriaren piramiedea. (Eustatetik ateratako informazioa 2016ko urtarilaren 1ean)



2.1 BIZTANLERIA

5. Grafika. Haur, zahartzea eta gainzahartze indizeak (E eta G) mendekotasun demografiaren arabera. 2003-2016 batzbestekoa (UDALMAPetik ateratako datuak)




2.1 BIZTANLERIA

Populazio datuak sexu eta adinaren arabera eta Eustatek 2016ko urtarrilaren 1ean oinarrituta emandako informazioa aztertzen badugu, hauxe ikus dezakegu:

- 34 urteetara arte, emakume eta gizonen ordezkaritza orekatua da. Adibidez, 25-34 adin tartean 230 pertsona daude, %49 emakumeak dira eta %51 gizonak.
- Baina adina aurrera doan heinean emakumeen ehunekoa jaitsi egiten da: 35-44 urte bitartekoan artean emakumeak %38,88 dira. 45-54 adin-tartean emakumeen ehunekoak apur bat gora egiten badu ere (%42,91), hurrengo adin-taldean (55-69 urte) %39,57 dira.
- Joera hau 80 urteetatik aurrera aldatzen da: adin hauetako adinekoetatik (297) emakumeak %55,56 dira.

6. Grafika. Mendialdeko Kuadrillako biztanleria secuaren eta adinaren arabera. (Eustetik ateratako informazioa 2016ko urtarrilean)




Datu hauek lehen adierazitako alderdiak baieztatzen dituzte:

- Batetik, emakumeak (are gehiago 35 eta 69 urte artekoak) gizonak baino beste eremu geografiko batzuetara joateko joera handiagoa dute.
- Bestalde, kuadrillako populazioaren gain-zahartze fenomenoak batez ere emakumeengan eragina du. Ziurrenik emakumeen bizi-itxaropena handiagoa delako, beste gauza batzuen artean.


2.1 BIZTANLERIA

2.1.2 Atzerriko biztanleriaren eboluzio globala


7. Grafika Atzerriko biztanleriaren garapena totalaren arabera. 2010, 2011 eta 2016 (Ikuspegitik aterarata)



8. Grafika atzerriko biztanleriaren garapena sexuaren arabera 2010, 2011 eta 2016 (Ikuspegitik ateratako informazioa)



9. Grafika Atzerriko biztanleriaren garapena nazionalitatearen arabera. 2015. (Ikuspegitik ateratako informazioa)



Ikuspegiren datuen arabera, Arabako Mendialdeko kuadrillan 2016an 158 atzerritar bizi ziren, hau da, lurralde honetako populazioaren %5,3. 158 atzerritar hauen artean 86 emakumeak (%54,4) eta 72 gizonak (%45,6) ziren.

2010etik 2012ra populazio atzerritarrek 0,3 puntuko igoera izan du, 2016an berriz ere %5,3ra jaisteko. Urte hauetan emakume eta gizonen ehunekoak antzekoak dira.

Datu hauek Lurralde Historikoko datuekin alderatuta, kuadrillan bizi diren atzerritar kopurua askoz txikiagoa da, Araban %10,5ekoa baita (Ikuspegi), eta Bizkaia eta Gipuzkoarekin alderatuta atzerritar gehien dituen lurraldea da.

Jaioterriko kontinentearen arabera, indize altuenak Amerika (%39,9) eta Afrikatik (%32,9) etorritakoak dira. Europako populazioa %26,6 da eta Asiakoa %1,3.

2.1 BIZTANLERIA


2.1.3. Familia ereduak

Tokiko politikak diseinatzerakoan aintzat hartu beharreko aldagaietako bat etxeen osaera da. Ezaugarriak aztertzeko EUSTATen (berrienak 2001ekoak dira) eta INEko (Populazio eta Etxebizitzaren Errolda 2015) datuak erabili ditugu. EUSTATEk familia ahaidetasun-harremana (odolezkoa edo ezkontzaren ondoriozkoa) duten pertsona talde bezala definitzen du, eta gradua gorabehera, elkarrekin bizi dena, etxe berean. Etxebizitzan lo egiten duten etxe-langileak eta familia erregimenean dauden ostalariak ere familia barruan sartzen dira. Halaber, bakarrik bizi diren pertsonak ere sartzen dira. Ondoren, familia moten klasifikazioaren deskribapena aurkeztu dugu.

1.Tabla. Familia mota EUSTAT eta INEren arabera

Familia mota	Deskribapena
Bakarrekoa	Ez dauka familia nukleoa eta bakarrik persona bat dago
Seme-alabarik gabeko nukleoa	Bikote batez osatutako nukleoa eta seme-alabarik gabekoa
Seme-alabak dituen nukleoa	Bikote batez eta seme-labaekin baina nukleo propiorik gabeko familia
Aiata bakarrekoa edo ama bakarrekoa	Ama edo aita bat seme-alabekin osatutako familia nukleoa
Konposatua	Ez dauka familia nukleorik, baina bi persona edo gehiagoz osatuta dago.
Haundituta	Edozein motatako familia nukleoa harreman familiarrarekin

10 Grafika Mendialdeko Kuadrillako familia ereduak 2001. (EUSTATetik ateratako informazioa)



2001. urtean Arabako Mendialdeko kuadrillako etxeen erdiak pertsona bakarreko (%33,3) eta ondorengoak dituzten etxe nuklearren (%26,7) artean banatzen ziren. Gero, ondorengorik gabeko etxeak daude (%16,3), guraso bakarrekoak (%10,3) eta zabaldutakoak (%6,5). Konposatutako eta nukleo anitzeko etxeak %6,5 dira, gutxi gorabehera.



2.1 BIZTANLERIA

Familia moten gaineko datuek islatzen dute %26,7 bakarrik jarraitzen duela familia eredu “tradizionala”, hau da, ondorengoak dituen bikote batez osatutakoa. Familia eredu tradizionalerako aldaketak genero rolen aldaketari lotuta daude, eta emakume gehienek zaintza lanari esker bakarrik (ordaindu gabea eta oso gutxi baloratu dena) eutsi den sistema ekonomiko eta sozial bat zalantzan jartzeko beharra planteatu dute. Zentzu honetan, azpimarratu behar da biztanleriaren zahartzeak dependentzia duten pertsonen arretari lotutako politika publikoen eremuan ondorio garrantzitsuak dituen bezala, familia ereduarekin lotutako aldaketek ere ondorioak dituztela, “Zaintza partekatua” kapituluaren ikusiko dugun bezala.

Familia motaren gaineko sexuaren arabera banatutako datuak “Lurralde eremuaren eta nukleo motaren arabera familia nukleoak. 2001 Eustat” estatistikan bakarrik daude eskuragarri. Estatistika hauen arabera, 2001. urtean Arabako Mendialdeko kuadrillan erregistratutako guraso bakarreko etxeen %73,5 ondorengoak dituzten emakumez osatuta zeuden.

2 Taula: Ezkontideak sexuaren eta egoera zibilaren arabera. Arabako eta Mendialdeko Kuadrilla aldeak. (Guk egina Eustateko datuetatik)

	Gizonak				Emakumeak			
	Totala	Ezkontidea	Alarguna	Dibortsiatuta	Totala	Ezkontidea	Alarguna	Dibortsiatuta
Araba	1.188	1.060	8	120	1.183	1.045	4	134
Mendialdea	5	4	0	1	5	5	0	0

Azkenik, ezkontzei dagokienean, 2015eko datuen arabera, bai Araban baita kuadrillan egondako ezkontzen %80 baino gehiago emakume eta gizon ezkongabeen artekoak izan ziren.





2.2 LANA ETA EKONOMIAREN SUSTAPENA



2.2 LANA ETA EKONOMIAREN SUSTAPENA

2.2.1 Sarrera

Kapitulu honetan Arabako Mendialdeako kuadrillako enplegua eta sustapen ekonomikoari buruz hitz egingo dugu.

Lortutako datuak zerrendatu aurretik, argitu beharra dugu lanari buruz hitz egiterakoan lan produktiboari zein lan erreproduktiboari eta bizitzaren euskarri denari buruz ari garela. Ikuspegi honetatik gogorarazi behar dugu lan produktiboa merkatuarentzat moneta balorea duena dela, eta erreproduktiboa tradizionalki emakumeek egindako hori dela, eta aitortza ekonomiko eta sozialik ez duena.

Horrela, Diagnostikoaren atal honetan lan produktiboari buruzko datuak aurkeztuko ditugu, ordainduta dagoena eta merkatuak enplegu bezala ikusten duena. Lan erreproduktiboa “Zaintza partekatua” kapituluan jorratuko da.

□ Langabezia: enplegu eskatzaileen eta langabeen profila.

□ Kontratazioak: lan kontratuen tipologia sexua, adina eta jatorria/nazionalitatea aldagaien arabera.

□ Enplegua eta ekintzailetasunerako baliabideak: enplegua eta ekintzailetasuna sustatzeko eskuragarri dauden baliabideak, enplegurako eta ekintzailetasunerako formazioa, eta sustapen ekonomikoa.

Datu gehienak EUSTATEk eman ditu eta 2006ko Populazio eta Etxebizitza Estatistikatik eta 2011ko Populazio eta Etxebizitzaren Erroldatik hartuak dira. Kontratazioen azpi-atalaren datu-iturria LANBIDEk egindako SISPE kontratuen fitxategi estatistikoa izan da.

2.2 LANA ETA EKONOMIAREN SUSTAPENA


2.2.2 Biztanleria aktiboa eta ez aktiboa

Ekonomikoki aktiboa den populazioa 16 urtetik gorako ordaindutako enplegua duten (okupatutako edo enplegua dutenak) edo enplegua bilatzen ari direnek osatzen dute.


2010-2016 epealdian Arabako Mendialdeako kuadrillako populazio aktiboaren ehunekoa handiagoa da gizonen artean (%60 inguru). Dena den, emakumeen kasuan 2015 eta 2016. urteetan 2 ehuneko puntuko igoera eman da 2010. urtearekin alderatuta. Adinaren arabera, gizonen %75 eta emakumeen %70 35 eta 50 urte artean dituzte. Emakumeek aktibitate gutxiago izatearen arrazoiak bi izan daitezke: (i) emakumeek gehiegizko ordezkaritza duten lan-eremuen informalitatea, etxeko lana adibidez. kuadrillakoa bezalako landa-eremu batean aintzat hartuko beharko litzateke ere emakumeak nekazal sektorean lan egiten dutela, bertan izena emanda egon gabe. (ii) lanaren sexuaren araberako banaketa, emakumeak lan erreproduktiboaren etxeko eremura mugatu dituenak, eremu produktiboan sartzea mugatuz.

Bestalde, 2016an 1.486 pertsonen osatzen zuten kuadrillako populazio ez aktiboa, horien %48 emakumeak. Urteetan kolektibo hau osatzen duten emakumeen proportzioa jaitsi dela ikusi da.


11 Grafika. Lanik gabeko biztanleria sexuaren arabera.. 2015 eta 2016. (EUSTATetik ateratako informazioa)



12 Grafika . Biztanleria aktiboa sexuaren arabera 2010, 2015 eta 2016. (EUSTATetik ateratako informazioa)




13 Grafika . Biztanleria aktiboa sexuaren eta adinaren arabera 2016 (EUSTATetik ateratako informazioa)




2.2 LANA ETA EKONOMIAREN SUSTAPENA

2.2.3 Okupaturako biztanleria

14 Grafika. Okupaturako biztanleria sexuaren arabera. 2010 eta 2016.



15. Grafika. Sexuaren eta lan esperruaren araberrako datuak. 2016 EUSTATetik ateratako informazioa)



2016an 1.340 pertsonen osatzen zuten Arabako Mendialdeako kuadrillako okupaturako populazioa, hau da, 2010. urtean baino 132 pertsona gutxiago. Sexuaren arabera, emakumeen ehunekoak gora egin duela ikusi da, 2010ean %38 izatetik 2016an %40 izatera pasa dena, gutxi gorabehera (tasa gizonena baino txikiagoa izaten jarraitzen badu ere).

Jarduera sektoreen arabera, 2016an emakume gehienek (%76,3) zerbitzu sektorean lan egiten zuten. Sektore honetan okupaturako gizonak %42,5 ziren. Industrian %33,5 eta nekazaritzan %14,6k lan egiten zuen.

- Gizarte Segurantzaren afiliazio datuek haxe diote:
- Arabak kuadrillak baino ehuneko askoz altuagoak ditu, emakume zein gizonenak.
 - kuadrillako emakumeen tasa baxuagoa da bai 2009an baita 2015ean ere. Hala ere, emakume-gizon ratioak murrizteko joera du.
 - Udalerrri mailan, emakumeen afiliazio tasa altuenak Arraia-Maeztun, Bernedon eta Haranan daude.
 - Udalerrriko emakumeen afiliazio tasa baxuena Lagranen dago.

3 Tabla.Segurtasun sozialeko afiliazioa udal, eskualde eta probintziaren arabera. 2009 eta 2015. (EUSTAT etik ateratako informazioa)

	2009		2015	
	% M	% H	% M	% H
Arraia-Maeztu	38,3	45,43	38,15	45,75
Bernedo	35,32	46,92	36,98	42,6
Campezo	33,48	48,58	36,98	44,15
Valle de Arana	34,78	37,8	41,67	34,62
Lagrán	33,33	30,77	22,22	19,77
Peñacerrada	22,52	25,47	32,63	30,67
Media Montaña Alavesa	32,96	39,16	34,77	36,26
Araba/Álava	42,82	55,37	44,87	50,51


2.2 LANA ETA EKONOMIAREN SUSTAPENA

2.2.4 Kontratazioak (sexu eta mail akademikoaren arabera)


LANBIDEK egindako SISPE kontratuen fitxategi estatistikoaren datuen arabera, Arabako Mendialdeako kuadrillan 2016an 658 kontratazio egin ziren. Horietatik, 380 emakumeak (%58) eta 279 gizonak (%42) izan ziren.

Epealdi horretan kontratu bat lortu zuten emakume eta gizonen formazio maila adierazgarriena bigarren hezkuntzako lehenengo etapa da, eta ondoren Batxilergoa. Emakumeek gizonek baino hezkuntza etapa altuagoak dituztela azpimarratu da (Erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketa, eta Diplomatura, Lizentziatura eta Graduiko Ikasketak).

16. Grafika. Sexuaren arabeko kontratazioak. 2016 (SISPEk eta LANBIDEk egindako datuak)



17 Grafika. Hezkuntza maila eta sexuaren arabeko kontratazioak. 2016. (SISPEk eta LANBIDEk egindako datuen arabera ateratako informazioa)




2.2 LANA ETA EKONOMIKOAREN SUSTAPENA

2.2.5 Kontratazioak (sexu, adina eta okupazioaren arabera)


Adin eta sexu taldeen arabera kontratazioen banaketak adierazten du emakumeen kontratazioak gizonezkoenak baino gehiago direla 20 eta 24 urte bitartekoan artean.

Okupazioaren arabera kontratazioen inguruko datuek adierazten dute emakumeak zerbitzu sektorean eta lanpostu teknikoetan batez ere kontratatu zituztela. Gizonak kualifikatu gabeko lanpostuetan, zerbitzuetan, nekazaritzan eta industrian kontratatu zituzten.

18 Grafika. Adinaren eta sexuaren arabera kontratazioen datuak. 2016 (SISPEk eta Lanbidek egindako datuetatik ateratako informazioa)




19 Grafika. Sexuaren eta okupazioaren arabera kontratazioen datuak. 2016 (SISPEK eta Lanbidek egindako datuetatik ateratako informazioa)



2.2 LANA ETA EKONOMIAREN SUSTAPENA

2.2.6 Kontratazioak (sexu eta kontratu motaren arabera)

20 Grafika. Kontatu motaren eta sexuaren araberako datuak. 2016 SISPE eta LANBIDEk egindako datuetatik ateratako informazioa)



Kontratu motaren arabera, ikusi da 2016an Arabako Mendialdeako kuadrillan emakumeei egindako kontratazio gehienak lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuak izan zirela. Kontratazio mota hauetan kontratatutako emakume kopurua gizonena baino askoz altuagoa da. Aldiz, lanaldi osoko obra eta zerbitzuetako kontratuetan kontratatutako gizon kopurua altuagoa da. Beraz, ondorioztatu daiteke kontratu etako behin-behinekotasunak emakumeak kaltetzen dituela batez ere.

2.2 LANA ETA EKONOMIKOAREN SUSTAPENA

2.2.7 Langabetuak

4 Tabla. Langabeziaren garapena Mendialdeko Kuadrillan eta EAEan (LANBIDEko datuetatik ateratako informazioa)


HIRUILEKOAK	LANGABEZI TASA		
	Gizonak	Emakumeak	E.A.E.
1º Hiruilekoa 2016	7,76%	7,93%	7,84%
2º Hiruilekoa 2016	7,42%	8,45%	7,90%
3º Hiruilekoa 2016	6,85%	8,06%	7,41%
4º Hiruilekoa 2016	6,85%	8,98%	7,84%
1º Hiruilekoa 2017	7,53%	10,43%	8,67%

2016 eta 2017ko lehenengo hiruhileko langabeziaren eboluzioak gorako joera erakusten du emakume zein gizonentzat, hala ere, emakumeentzat apur bat gehiago. 2017ko lehenengo hiruhilekoan kuadrillako emakumeen langabezi-tasa %10,43 da, gizonena %7,53 eta EAEkoa %8,67. Lanbideren datuen arabera, 2016ko lehenengo hiruhilekoan 128 pertsona zeuden langabezian kuadrillan, 60 emakume eta 68 gizon.


Adinaren arabera, lanik gabeko emakume eta gizon gehienak 25 urtetik gorakoak dira. Lanik gabeko gizonen %55 45 urtetik gorakoak dira, eta adin-tarte bereko emakumeen %36,67.

Jarduera sektorearen arabera kuadrillako langabetuak merkataritza eta ostalaritzan (%24,2), industrian (%20,3) eta lanpostu tekniko eta administratiboetan (%15,6) daude batez ere.

21. Grafika Mendialdeko Kuadrillako Lanik gabeko pertsonak sexuaren eta adinaren arabera 2016ko lehenengo hiruhilekoa . (LANBIDEko datuetatik ateratako informazioa)




22. Lanik gabeko pertsonak aktibitatearen arabera Mendialdeko Kuadrilla. 2016ko lehenengo hiruhilekoa . (LANBIDEko datuetatik ateratako informazioa)




2.2 LANA ETA EKONOMIAREN SUSTAPENA

2.2.8 Nekazaritzako ustiategiak


23 Grafika. Ustiapenen titularitatea mota ezberdinen arabera..
(Nekazaritza Departamentuak egindako datuen arabera)



24 Grafika. Ustiapenen titularitatea sexuaren arabera, banakakoak eta elkartuak (Nekazaritza departamentuak egindako datuetatik ateratako informazioa)



25 Grafika. Emakumeen Bakaneko usatiapenak motaren arabera. (Nekazaritza departamentuak egindako datuen arabera ateratako datuak)



Nekazaritza Sailak 2017ko azaroan emandako datuen arabera, Arabako Mendialdeako kuadrillan 508 nekazaritza ustiategi daude. Horietatik, %79,7k banakako titulartasuna izan dute, %7,7k elkartutako titulartasuna, %0,2k partekatutako titulartasuna eta %12,4k (besteak) Udalena, Administrazio Batzarrena, etab.

Sexuari dagokionez, banakako ustiategien %20,2 bakarrik dira emakumeenak, baina elkartutako ustiategietan emakumeen ordezkartza %53,8koa da. Analisisan sakonduz, ikus dezakegu emakumeen titulartasunekoak diren banakako ustiategi gehienak nekazaritzakoak direla (53). Ondoren mistoak (nekazaritza eta abeltzaintza) eta abeltzaintzakoak (10).

2.2 LANA ETA EKONOMIAREN SUSTAPENA

2.2.9 Ekintzailetasuna eta ekonomia sustapena

Arabako Mendialdeako kuadrillak Ekonomia Sustapenerako Zerbitzua du, funtzio hauek dituena:

- Enplegua bilatzeko, CVA egiteko modua, enpresa bat osatzeko jarraitu beharreko pausuak, eta abarren inguruan informazioa eta aholkuak eman.

- Erakunde publikoekin harremanetan jarri Ekonomia Sustapen, Formazioa eta Enplegu eremuan jarduera ildoak ezagutzeko.

- Sektore produktiboan sortzen diren ekimenak kudeatu, sustatu eta lagundu.

- Goiko instantzietatik sustatutako politikak ebaluatu eta horien jarraipena egin.
- Formazio programak egin zonaldean hautemandako beharren arabera eta profesionaltasun handiagoa lortzeko eta lan munduan sarrera ildoak erraztera bideratutakoak.
- Eskualdea diziplina anitzetan lan eginez sustatu eta dinamizatu, kuadrillako Eskualde Taldeko gainontzeko kideekin zein populazioarekin orokorrean.

5 Tabla. Ustiapen ekonomikoko arloko helburuak.. (2016ko memoriatik ateratako datuak)

Helburu orokorrak

- Eskualdeko garapen ekonomikoa lortzea.
- Eskualdeko bizitza kalitatea hobetzea
- Eskualdeko partaidetza aktiboagoa lortzea
- Pausai eta errekurtsio naturalak mantentzeko neurriak diseinatzea eta garatzea.
- Eskualdeko errekurtsioak baloratzea

6 Tabla . Sustapen ekonomikoko lan ildoak (2016ko memoriatik ateratako datuak)

Lan ildoak

- Enplegua eta formakuntza
- Turismoa eta ingurgiroa
- Landa eremuko garapena

2.2 LANA ETA EKONOMIAREN SUSTAPENA

2.2.9.1 Turismoan 2016an garatutako jarduerak

Atal hau egiteko Ekintzailetasun eta Ekonomiaren Sustapen Zerbitzuaren 2016ko Memoria kontsultatu da. Bertan, urte horretan martxan jarritako jarduerak zehaztu dira. Dena den, memoria honetan ez da jarduera hauen eduki eta kudeaketan genero ikuspegia barne hartzen duen analisirik aurkeztu, eta parte-hartzaileen sexuaren arabera banatutako datuak ere ez dira aurkeztu. Hori dela eta, ezin izan dugu zerbitzu honek sustatutako jardueren genero analisia egin.

7 Tabla . Turismoa eremuan egindako Mendialdeko Kuadrillan. (2016ko memoriatik ateratako datuak)

Ekintza	Azalpena
Folletoak egitea	- BBT-Izki Mendialdeko folletoaren edizioa - Eskualdea ezagutzera emateko, material turistikoa eta BBten popularrak diren lasterketen materiala egitea. - Bolsa turistikoa - 2017ko eguegia kuadrillako argazkiekin
Produktu turistikoa sirtzea eta sustazea	- Vía Verde EGUNA bi martxa antolatu bizikletaz eta oinez - “Día del Camino Ignaciano” Menidaldeko kuadrillako bideetatik egindako oinezko ibilbidea - Centro Nordic Working Gunea sortu parHaranan - “Ruta TransAñana”, Añanako Kuadrillaren egindako ekintza bi kuadrillen arteko errekurtsu turistikoa ezagutzera emateko.
Orrialdeen eguneratzea eta diseinua	- Kuadrillako web gune turistikoaren eguneratzea

Arabako Mendialdean nekazaritza eta abeltzaintza nagusi dira. Landa izaera honek etorkizunerako aukera dela ematen du, natura, paisaiak eta kultura oso baloratuta baitaude.

Eta aisialdia eta turismoa jarduera ekonomikoen barruan sartu behar direnaren ikuspegitik beharrezkotzat jo da eskualdeko proiektu turistikoa bat egitea. Eremu honetan sustatutako jarduerak egiteko Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak laguntza eman dute

Ezkerreko taulan turismoaren inguruan egindako jardueren deskribapen laburra egin da.

2.2 LANA ETA EKONOMIAREN SUSTAPENA

2.2.9.2 Turismoan 2016an garatutako jarduerak

7 Tabla jarraipena. Turismo eremuan egindako ekintzak Mendialdeko Sustapen ekonomiko (2016ko memoriatik ateratako informazioa)

Ekintza	Azalpena
Teknologia berriak	- Arabacamper egitea
Erreportai fotografikoak egitea	- Errekurtso turistikoak sustatzeko erreportai bat egitea
Bisita gidatuak egitea	- Eskualdetik visita gidatuak egitea - Nordik-Wlaking ibilbide tematikoa
Kanpoko aholkularitza ematea kalitate ziurtagiria lortzeko	- SICTED programak sustatzea
Azoketan parte hartu	- Azoketan parte hartu
Informazio turistikoko bulegoa sustatu	- Informazioa eman turismo bulegoan - Bizikleta publikoen gestioa
Camino Ignacianoren seinalatzea	- Kuadrillako zazpi herrietatik pasatzen da. Seinalizazioa jarri da hainbat puntutan
Beste kuadrillekin harremana eta elkarlana	- Beste kuadrillekin formazio prozesuetan parte hartu

Turismoan guztira 19 jarduera egin ziren 2016an, guztiak zonaldeko turismo baliabideak sustatzeko eta Kuadrilako natur paisaiaren ezagutza sustatzeko xedez.

2.2 LANA ETA EKONOMIAREN SUSTAPENA

2.2.9.3 2016an Lanbideren bidez formazio eta enpleguaren eremuan egindako jarduerak eta beste jarduera batzuk

Formazio eta enpleguaren eremuan 4 jarduera egin ziren, bi enplegua sustatzearekin eta ekintzaileek martxan jarritako proiektuak laguntzearekin lotuta eta beste bi formazioarekin lotuta.

Egindako gainontzeko jarduerak kuadrillako informazio eta aholkularitza zerbitzua eskaintzea, administrazio publikoekin harremanetan jarri ekonomiaren sustapenean jarduera lerroak ezagutzeko eta lan-poltsa mantentzea izan dira.

8 Tabla . Formakuntza eta lan arloan egindako ekintzak sustapen ekonomikokom arloan (2016ko memoriatik ateratako datuak)

Ekintza	Azalpena
Enplegua sustatzeko diru laguntaren deialdia	- Udal hauetarako proiektuak aurkeztu dira: Harana,, Arraia-Maetzu eta Kampezu. Kuadrilla mailan ere proiektu bat aurkeztu da.
Hasi Berri diren pertsonen lagundutako diru laguntzak	- Lagundu da persona bati proiektu batekin
Formakuntza programak	- Esperientzia turistikoak. - Lana bilatzeko laguntza .

9. Taula: Ekonomia sustapeneko zerbitzuak egindako veste ekintza batzuk..
(Guk egina 2016ko memoria oinarri)

Ekintza	Azalpena
Informaio eta laguntza zerbitzuaren aurkezpena	- Laguntza eta informazioa - Sektore ekonomikokoekin bilerak
Erakunde publikoekin harremana	- Sustapen ekonomikoko lan ildoak ezagutzeko
Lan-poltsa egitea	- Gendeari lan poltsaren inguruan informazioa eman zaio

2.2 LANA ETA EKONOMIAREN SUSTAPENA

2.2.9.4 Ekonomiaren Sustapen Zerbitzuko teknikariek kontraste elkarrizketa

Diagnostiko prozeduran Ekonomiaren Sustapen Zerbitzuko teknikariarekin elkarrizketa bat egin zen eremu honetatik sustatzen diren programak hobeto ezagutzeko, baita eremu honen barruan garatzen ari diren politika eta programetan genero ikuspegia sartzeko aukera eta beharrak hobeto ezagutzeko ere. Lortutako informazio garrantzitsuena azpimarratuko dugu:

ZERBITZU HONETAN GARATUTAKO JARDUERA GARRANTZITSUEI DAGOKIENEAN

- Turismoaren eremuan Eusko Jaurlaritzatik eta AFAtik batez ere datozen diru-laguntzak kudeatzen dira. Teknologia berriekin eta enpresaritza eremuko praktika onekin lotutako bi kalitate programa ere kudeatzen dira. Turismo bulegoa azpikontrataturako baliabidea da.
- Enpleguari dagokionez, aurreko ataletan ikusi dugun bezala, lan-poltsa eta ekintzailetasun ekintzak kudeatzen dira Lanbiderekin batera. Gainera, zerbitzuak formazio programa propioa du, kuadrillan hautemandako beharretan oinarrituz garatzen dena.

KOORDINAZIOARI DAGOKIONEZ

- Ekonomiaren Sustapen Zerbitzua kultura teknikariarekin koordinatzen da ekimen turistikoak garatzeko, eta kuadrillako gizarte langilearekin Lanbideren bidez enplegu eta enpresaritza sustapenean garatzen diren jarduerak kudeatzeko.
- Kuadrilako udalerriekin ere koordinazio zuzena dago, enplegu eta enpresaritza proiektuak ezartzen diren herriaren arabera garatzen dena.
- Zerbitzu honetatik Turismo Mahaian parte hartzen da -sektore publiko eta pribatuek parte hartzen dutena- eta horretatik sortzen den sektore mahaian.

INFORMAZIOA SISTEMATIZATZEARI DAGOKIONEZ

Esan den moduan, berdintasuna sustatzeko estrategia bat zabaltzeko ezinbestekoa da esku hartzen den errealitatearen genero analisia egiteko aukera ematen duen informazioaren sistematizazioa. Sistematizazio hori ezartzeko lehen pausua sexuaren arabera banatutako informazioa biltzea da.

2.2 LANA ETA EKONOMIAREN SUSTAPENA

kuadrillako Ekonomiaren Sustapen Zerbitzuak duela gutxi hasi da sexuaren arabera banatutako informazioa biltzen. Zehazki, Berdintasun Teknikaria lanean hasi denetik. Hala ere, informazio hori ez da sistematikoki biltzen. Beraz, ez da erraza alor zehatz honetan desberdintasuna eta genero bazterketa egoerak identifikatzeko aukera ematen duen genero analisi bat egitea. Modu berean, ez du laguntzen egiten ari diren jarduera eta programetan genero inpaktua baloratzerakoan.

Egoera honen aurrean, Ekonomiaren Sustapen Zerbitzuaren politika eta programen barruan genero berdintasuna sustatzeko neurri zehatzak definitu aurretik, informazioa biltzeko eta sistematizatzeko erremintak ezartzea da. Era berean, ezinbestekoa da teknikariei sistematizatutako informazioaren genero ikuspegitik analisisa egitearen gaineko gaitasuna eskaintzea.

2.2.10. Kuadrilako Gerentziarekin kontraste elkarriketa

kuadrilla esku hartzen ari den errealitateen genero analisisa egiteko aukera ematen duen informazioaren sistematizazioa ezartzeak Gerentziaren laguntza beharko du, lanpostu horretatik zentralizatzen baita garatzen ari diren politika eta programa ezberdinen informazioa. Adibidez, Gerentea da kuadrillako Zerbitzu eta Programa ezberdinen memoriak zentralizatzen dituenak. Era berean, Gerentziak horien jarraipena egiten du eta kuadrillako Batzarrari informazio garrantzitsua helarazten dio.

Gerentziak ere kuadrillak egiten dituen kontratazio guztiak kudeatzen ditu, Administrazio Batzarrei aholkularitza eta laguntza ematen die edozein administrazio lanaren inguruan eta legea betetzearen gaineko kontrola egiten du.

Beraz, EAEko emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 legea betetzen dela egiaztatzeko lanpostu klabea da, baita ohiko administrazio prozeduretan genero ikuspegia sartzeko ere.



2.3 ZAINKETA ERANTZUNKIDEAK



2.3 ZAINKETA ERANTZUNKIDEAK

2.3.1 Denboraren erabilera

Kapitulu honetan bizitzaren zaintza eta eustearen gainerako gaiak jorratzen dira, norberarena eta besteena. Zaintza lan hauek (lan erreproduktiboa) batez ere emakumeek egiten dituzte eta kasu gehienetan ordaindu gabekoak izaten dira.

EUSTATEk egindako Denboraren Erabilerari buruzko inkestaren gainerako datuen balorazioarekin hasiko gara. Honek kuadrillako datu zehatzak ezberdintzeko aukera ematen ez duen arren, Arabako Lurralde Historikoko datuak hartu ditugu.

Analisi zehatzago bat egin ahal izateko, kuadrillako datu zehatzak izateaz gain inkesta honen aldagaietako batzuetan sakontzea ere garrantzitsua litzateke. Adibidez, ibilbideekin lotuta, horien helburua zehaztu edo aisialdi pasiboarekin lotuta aintzat hartu nola ulertzen den eta zein beste jarduera ekar dezakeen.

10. Taula Partaide bakoitzaren batzbesteko parte hartzea. Araba 2013. (Fuente: EUSTAT)

		Totalak	Gizonak	Emakumeak
Behar fisiologikoak	Lan egunak	11,38	11,33	11,43
	Ostirala	11,59	11,58	12
	Larunbata	13,22	13,17	13,27
	Igandea	13,13	13,11	13,15
Lan eta formakuntza	Lan egunak	3,42	4,12	3,11
	Ostirala	3,15	3,53	2,38
	Larunbata	0,57	1,09	0,45
	Igandea	0,54	1,04	0,43
Etxeko lanak	Lan egunak	2,32	1,53	3,12
	Ostirala	2,25	1,44	3,07
	Larunbata	2,36	2,03	3,1
	Igandea	2,12	1,15	3,09
Cetxeko zaintza	Lan egunak	0,25	0,18	0,33
	Ostirala	0,28	0,17	0,39
	Larunbata	0,23	0,2	0,27
	Igandea	0,28	0,24	0,33
Bizitza soziala	Lan egunak	0,25	0,27	0,23
	Ostirala	0,31	0,22	0,39
	Larunbata	0,5	0,54	0,46
	Igandea	0,52	0,58	0,46
Kirola	Lan egunak	1,18	1,27	1,08
	Ostirala	1,31	1,49	1,12
	Larunbata	1,46	1,56	1,37
	Igandea	1,51	2,12	1,3
Bestelakoak	Lan egunak	2,5	2,53	2,46
	Ostirala	2,47	2,43	2,51
	Larunbata	3,02	3,26	2,38
	Igandea	3,36	3,36	3,59
joanetorriak	Lan egunak	1,1	1,15	1,05
	Ostirala	1,04	1,14	0,54
	Larunbata	1,08	1,06	1,1
	Igandea	0,54	0,57	0,52

2.3 ZAINKETA ERANTZUNKIDEAK

Aurreko taulako datuak aztertu ondoren, hauek dira atera ditugun ondorioak:

- ❖ Behar fisiologikoak estaltzea egunero dedikazio handiena behar duen jarduera tipologia da: lanegunetan batz best 11 ordu baino gehiago eta 13 ordu baino gehiago asteburuetan. Emakumeek euren behar fisiologikoak estaltzen denbora gehiago ematen badute ere, ezberdintasunak ez dira oso handiak.
- ❖ Lanegunetan batz best 3 ordu eta 45 minutu ematen dira lan eta formazio jardueretan. Sexuaren arabera, gizonak emakumeak baino ordubete gehiago ematen dute gutxi gorabehera jarduera mota hauetan, asteburuetan ezberdintasunak murrizten badira ere.
- ❖ Etxeko lanen garapenari dagokionez, batz besteko denbora 2 ordu eta erdi da. Emakumeek gutxi gorabehera gizonak baino denbora bikoitza ematen dute lan hauek egiten.
- ❖ Emakumeek ere denbora gehiago ematen dute “etxekoan zaintzan”, hemen ezberdintasuna txikiagoa bada ere.

- ❖ Bizitza sozialari dagokionez, emakume eta gizonak horretan ematen duten denbora antzekoa den arren, aipatu beharra dago emakumeek ostiraletan gizonak baino bizitza sozial gehiago dutela. Asteburuetan ordea, gizonak dira denbora gehiago ematen dutenak
- ❖ Gizonak denbora gehiago ematen dute aisialdi aktiboa eta kirola egiten. Asteburuetan, bi sexuek jarduera hauetan ematen duten denbora handitzen da, gizonak gehiago ematen badute ere. Adibidez, igandeetan gizonak emakumeen bikoitza ematen dute jarduera hauetan.
- ❖ Aisialdi pasiboari dagokionez, ezberdintasunak ez dira oso garrantzitsuak, larunbatetan izan ezik. Egun horretan, gizonak emakumeak baino ordubete gehiago ematen dute.
- ❖ Azkenik, ibilbideetan ematen den denborarekin lotuta, gizonak gehiago ematen dute. Hala ere, ezberdintasuna ez da oso handia. Asteburuetan orokorrean gizonak zein emakumeak denbora gutxiago ematen dute lekualdatzeetan, baina egun hauetan ere gizonak emakumeak baino gehiago egiten dute.

2.3 ZAINKETA ERANTZUNKIDEAK

2.3.2 Autonomia eta dependentziarako arreta sustatzeko baliabide eta zerbitzuak

Autonomia eta dependentzia duten pertsonak zaintzea sustatzeari zuzendutako erakundeen baliabide eta zerbitzu ezberdinak existitzen dira, ondorengo kategorietan sar daitezkeenak:

a. AUTONOMIA PERTSONALA ETA ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN EDO DEPENDENTZIA EGOERAN DAUDEN PERTSONEN IRISGARritasuna Laguntzeko Baliabideak

- ✓ Laguntza teknikoak: Laguntza teknikoak dependentzia egoeran dauden edo aniztasun funtzional motaren bat duten pertsonak eta gainontzeko herritarren baldintza berdinetan gizartean mugitzeko gaitasuna murriztua dutela uste dutenak euren laguntza beharrak estali ahal izateko beharrezko laguntza bezala sortu dira. Beste batzuen artean, helburua da aniztasun funtzionala duten edo dependentzia egoeran dauden pertsonak euren ohiko etxebizitzetan jarraitzea. Horretarako, laguntza teknikoak diru-laguntza edota laguntza produktuak emanez ezartzen dira.

b. ADINEKO PERTSONEI EDOTA ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTENEI ZUZENDUTAKO INGURUAN MANTENTZEKO Baliabideak

- ✓ Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua: asistentzia izaera eta izaera prebentiboa duen zerbitzua da, dependentzia arrisku edo egoeran dagoen erabiltzaileari bere etxean egoten lagunduz, etxeko laguntza pertsonala eskainiz, etxean bertan mugitu eta komunitatean integratu ahal izateko, isolamendu egoerak ekidinez.
- ✓ Eguneko zentroak: Eguneroko jarduerak egiteko beste pertsonen laguntza behar duten adin nagusientzako banakako eguneko arreta programa eskaintzen duten establezimenduak, baita euren egoera pertsonal eta sozialak direla eta aipatutako kolektiboaren berdina izan daitezkeenak, horretarako den espazio eta instalazioetan, berezko langile eta jarduera programekin.

2.3 ZAINKETA ERANTZUNKIDEAK

- ✓ **Tele asistentzia:** Izaera soziala duen zerbitzu teknikoa da, erabiltzaileei linea telefoniko baten bidez eta komunikazio eta informatika ekipamendu berezi batekin larrialdi edo gizarte behar egoerari erantzun egokia emateko -berak edo beste komunitate baliabide batzuen bidez- prestatuta dauden langileak dituen arreta zentro batekin harremanetan jartzeko aukera ematen diena.

ADINEKOENTZAT ETA ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN PERTSONENTZAT BIZIKIDETZA ALTERNATIBAK EMATEN DITUZTEN BALIABIDEAK

- ✓ **Egoitza zerbitzuak:** Kontraprestazio ekonomiko baten bidez adineko pertsonen eta ezgaitasuna dutenien edo euren egoera pertsonal eta sozialak direla eta kolektibo horren antzekoak diren egoera duten pertsonen ostaturatua, mantentzea eta arreta ematen dieten establezimenduak dira.

d. ZAINZAILAILEEN LAGUNTZA BALIABIDEAK


Etxean dependentzia duten pertsonen arreta euren gain hartzen duten familien beharrak aintzat hartzean datza. Egun, Aldundiak “Zaintzeko zaindu” programak eskainitako baliabide nagusiek ekintza desberdinak barne hartzen dituzte:

- Elkarrekiko laguntza taldeak.
- Senide zaintzaileen formazioa.
- Etxez etxeko laguntza psikologikoa adinekoak zaintzen dituzten senideentzako.

2.3 ZAINKETA ERANTZUNKIDEAK

2.3.3 Inguruan zaintzeagatik prestazio ekonomikoak (PEAP)


26. Grafika: PECEFeko zenbatekoaren garapena Mendialdeko Kuadrillako persona dependentenei dagokionez (Arabako Foru Aldundiko datuetatik aterata)



Familia inguruan zaintzeko prestazio ekonomikoa (PEAP) dependentzia duen pertsonari bere familia ingurukoak diren eta profesionalak ez diren zaintzaileek arrea emateko laguntza da.

Arabako Mendialdeako kuadrillan dependentzia duten pertsonen emandako PEAP kopuruaren garapenaren gaineko datuen arabera, emakumeak izan dira onuradun nagusiak erreferentziazko bi urteetan.

Grafika 27. Dependentsia graduaren garapena mendialdeko Kuadrillan (Arabako Foru Aldundiko datuetatik ateratako informazioa)




Dena den, 2011tik 2016ra bi sexuentzat emandako prestazio kopurua jaitsi zen emakumeei emandakoak 18 murriztu zirelako eta gizonei emandakoak 9.

Era berean, 2011n emakume onuradunen %75ak 2 eta 3. dependentzia graduak zituzten. 2016an 3. graduako dependentzia zuten emakumeak 17,5 puntu jaitsi ziren. Gizonen %66 baino gehiagok zuen bigarren graduako dependentzia 2011n zein 2016an.


2.3 ZAINKETA ERANTZUNKIDEAK

Grafika 28. PECEF laguntza jasotzen duten pertsonen garapena Mendialdeko Kuadrillan. 2011ko abenduan (Arabako Foru Aldunditik ateratako datuak)



Adinari dagokionez, 2011n emakumeen %87 eta gizonen %73 baino gehiagok 70 urte baino gehiago zuen.

Grafika 29. PECEF laguntza jasotzen duten pertsonen adinaren garapena 2016ko abenduan (Arabako Foru Aldunditik ateratako datuak)




2016an adin horretako emakumeen ehunekoa %80ra jaitsi zen eta %62ra gizonen ehunekoa. 2016an onuradun izan diren bi emakumek 101 eta 102 urte dituztela azpimarratu behar da.


2.3 ZAINKETA ERANTZUNKIDEAK

2.3.4 Inguruan zaintzeagatik prestazio ekonomikoak (PEAP): zaintzaileen profila


30. Grafika: PECEF laguntza jasotzen duten zaintzaileak sexuaren eta mailaren arabera Mendialdeko Kuadrillan. 2011ko abenduan (Arabako Foru Aldundiko datuetatik ateratako informazioa)



31. Grafika: PECEF laguntza jasotzen duten zaintzaileak sexuaren, mailaren eta ahaidetasunaren arabera mendialdeko Kuadrillan. 2016ko abenduan (AFAtik ateratako informazioa)



32. Grafika: Sexuaren arabera pertsona zaintzaileak. 2010eko abenduan eta 2016ko abenduan. (AFAko datuetatik ateratako informazioa)




30. Grafikan ikus daitekeenez, emakumeak, prestazio hauen onuradun nagusiak izateaz gain, nagusiki horiek jasotzen dituzten pertsonak zaintzeko ardura dutenak dira: 2011ko abenduaren 31n zaintzaileen artean sexuaren arabera osaera berdintsua zen arren, 2016ko abenduaren 31n emakumeak %66,7 ziren. Ahaidetasun harremanari dagokionez, ikus daiteke 2011n zein 2016an bi sexuetako zaintzaileak batez ere seme-alabak, ezkontideak eta anai-arrebak direla. Dena den, erreferentziazko bi urteetan emakumeen artean aniztasun handia dago, zaintzen dituzten pertsonen koinatak, errainak, ilobak eta izebak ere direlako.

2.3 ZAINKETA ERANTZUNKIDEAK


2.3.4 Inguruan zaintzeagatik prestazio ekonomikoak (PEAP): zaintzaileen profila

33. Grafika: PECEF laguntza jasotzen duten zaintzaileak sexuaren eta adinaren arabera. 2011ko abenduan (ElArabako Foru Alduntitik ateratako datuak)



Adinari dagokionez, bi sexuetako pertsonen %80 baino gehiagok 50 urte baino gehiago zituen 2011ko abenduaren 31n eta 2016ko abenduaren 31n. Adierazgarria da 70 urte baino gehiago dituzten zaintzaileak %30 inguru direla erreferentziazko bi urteetan.

34. Grafika: PECEF laguntza jasotzen duten zaintzaileak sexuaren eta adinaren arabera. 2016ko abenduan (AFAko datuetatik ateratako informazioa)




Dena den, kasu honetan gizon nagusiak dira adin tarte hauetan ordezkari gehien dutenak: 2011ko abenduaren 31n %36 dira, eta adin tarte bereko emakumeak, berriz, %31,6. 2016ko urtarilaren 31n gizonak 70 urtetik gorakoen zaintzaileen %29,4 dira eta emakumeak %23,5..

2.3 ZAINKETA ERANTZUNKIDEAK


2.3.5 Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa (ZLPE) eta autonomia pertsonalekoa (PEAP)

35. Grafika .


Mendialdean jaso diren PEV kopurua. 2011 eta 2016 (AFAko datuetatik ateratako informazioa)



36. Grafika: PEV laguntza jasotzen duten onuradunen dependentzia maila Mendialdeko Kuadrillan. 2011 eta 2016. (AFAko datuetatik ateratako informazioa)



37. Grafika: Mendialdean PEV laguntza jasotzen duten onuradunek erabili dituzten zerbitzuak. 2011 eta 2016 (AFAko datuetatik ateratako informazioa)



ZERBITZUARI LOTUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA (ZLPE) dependentzia duen pertsonari arreta emateko edo zaintzeko zerbitzu bat lortzera bideratuta dago. Arabako Mendialdeako kuadrillan dependentzia duten pertsonen emandako ZLPE kopuruaren garapenaren gaineko datuek prestazio hauek ematean egonkortasun bat adierazten dute. Izan ere, 2011n zein 2016an 11 eman ziren.

2011n

Emakume eta gizon onuradunen arteko oreka dago, baina 2016an gizonen kopurua handitu zen. Dependentzia graduari dagokionean, 2011n gizonak ziren dependentzia gradu altuena zutenak (3. gradua), eta 2016an bi sexuetan 2. graduako dependentzia da nagusi.

Azkenik, erabilitako zerbitzuen gaineko datuen arabera emakume zein gizonak egoitzetara joan dira nagusiki. Emakume bat bakarrik joan zen etxebizitza komunitario batera 2011. urtean.


AUTONOMIA PERTSONALEKO PRESTAZIO EKONOMIKOA (PEAP)

2016ko datuen arabera, 2 pertsonen jaso dituzte prestazio hauek: 3. graduako dependentzia duen 82 urteko emakume batek eta 1. graduako dependentzia duen 77 urteko gizon batek.

2.3 ZAINKETA ERANTZUNKIDEAK

2.3.6. Etxez etxeko Laguntza Zerbitzua (ELZ)

38. Grafika Sad duten emakumeen eta gizonen batzbesteko Mendialdeko Kuadrillan 2011ko abenduan eta 2016ko abenduan. (Arabako Foru Aldundiko datuetatik ateratako informazioa)



ELZ arreta pertsonala jasotzen dutenek eta dependentzia arriskuan daudenek bakarrik jaso dezakete.

Eskuragarri dauden datuen arabera, 2011n 43 pertsonak eta 2016an 52 pertsonak erabili zuten baliabide hau. Horietatik %60 emakumeak izan dira, eta horrek bi fenomeno islatu ditzake: lehenengoa, demoGrafika, emakumeek bizi-itxaropen handiagoa dutela.

11 Taula. Mendialdeko Kuadrillan SAD duten emakumeen eta gizonen adina 2011ko abenduan eta 2016ko abenduan. (AFAko datuetatik ateratako informazioa)


	2011		2016	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
51 urtetik 60ra	0,00%	6,25%	0,00%	0,00%
61 urtetik 70era	3,70%	12,50%	6,25%	15,00%
71 urtetik 80ra	14,81%	56,25%	18,75%	30,00%
81 urtetik 90era	70,37%	56,25%	62,50%	55,00%
90 urtetik gora	11,11%	12,50%	12,50%	10,00%

Bigarrenak adineko emakumeek adineko gizonekin alderatuta autonomia gradu handiagoa dutela islatzen du, izan ere, generoaren sozializazioa dela eta, emakumeek denbora gehiago ematen dute etxe barruan, euren bikoteak zaintzen edo bakarrik, alargunak direnean.

Adinari dagokionez, bai 2011n baita 2016an ere emakumeen %75 eta gizonen %65 baino gehiagok 80 urte baino gehiago zuen.

2.3 ZAINKETA ERANTZUNKIDEAK


39. Grafika: Mendialdeko Kuadrillari eman zaion SAD laguntza mota seuaren arabera. 2016ko abenduan. (Arabako Foru Aldundiko datuetatik ateratako informazioa)



Jasotako prestazio motarekin lotuta, 2016ko abenduaren 31n emakume gehienek (%68,75) eta ia gizonen erdiek (%45) Hirugarren adinekoentzako Etxez etxeko laguntza jaso du.

Ondoren, “Landa ELZ 1. Gradua 40 baino gutxiago” prestazioa dago, emakumeen %31 eta gizonen %50entzako. Minusbaliotasun Etxez etxeko Laguntza gutxien eskatu dena izan da: gizonen %5ak bakarrik eskatu du.

40. Grafika: Mendialdeko Kuadrillan izan diren bajk sexuaren arabera. 2011 eta 2016 (Arabako Foru Aldundiko datuetatik ateratako informazioa)



Azkenik, zerbitzu honetan guztira 21 baja eman dira, 9 2011 eta 12 2016an. Emakumeen artean arrazoi nagusia heriotza izan da 2011n eta 2016an. Gizonen artean berriz, heriotza eta zahar-etxean sartzea 2011n eta heriotza eta prestazioa iraungitzea 2016an. Emakume bakarrik uko egin dio prestazioa jasotzeari 2011n.

2.3 ZAINKETA ERANTZUNKIDEAK

2.3.7. Ezgaitasuna duten pertsonentzako egoitzak eta eguneko zentroak

Eguneko zentroak ezgaitasun fisikoa duten eta dependentzia egoeran dauden pertsonen zuzendutako gizarte baliabide bat dira, eguneroko oinarritzko jarduerak egiteko laguntza orokorra eta zehatza behar dutenak autonomia pertsonala izateko, gizarte parte-hartze ahalik eta handiena lortzeko.

Egoitzak ezgaitasun intelektualak, fisikoa edo sentensoriala duten pertsonen zuzendutako ostatuak dira, eguneroko oinarritzko jarduerak egiteko laguntza orokorra eta zehatza behar duten pertsonen autonomia pertsonala izateko, etxe propiorik ez dutenak edo arrazoi familiarak, lanekoak edo pertsonalak direla medio, autonomia pertsonaleko eta gizarteratze gradu handiena lortzeko beharrezko laguntza ematen diena. Lagunduriko pisuen eta egoitza zerbitzuen arteko ezberdintasuna da emandako laguntzen intentsitatea lehenengoetan txikiagoa dela. Beraz, autonomia gradu altuagoa duten pertsonen zuzenduta daude, hau da, dependentzia gradu txikiagoa dutenei.


Ezgaitasunerako egoitzen erabiltzaileen gainean aztertutako datuek adierazi dute 2011n eta 2016an bi emakumek erabili zutela baliabide hau. 59 eta 64 urteen artekoak ziren eta 1. graduko dependentzia zuten.

Eguneko zentroetan, erabiltzaile bakar bat erregistratu zen 2011n, gizona. Dena den, 2016an sei pertsona izan ziren eguneko zentroetan arreta emandako pertsonak, horietatik 4 emakumeak ziren eta 2 gizonak. Eguneko zentro motari dagokionean, bi gizonak Ehariko Eguneko Zentroan egon ziren eta lau emakumeak Autonomia Pertsonalerako Zentroetan.


2.3 ZAINKETA ERANTZUNKIDEAK

2.3.8 Eguneko arretarako landa zentroak


41. Grafika: Eguneko arretarako Landa Zentroen erabiltzaileak Mendialdean, sexuaren arabera. 2011ko abenduaren 31 (Arabako Foru Aldundiak emandako datuetatik eginda)



43. Grafika: Eguneko arretarako Landa Zentroen erabiltzaileak Mendialdean, sexuaren eta egoera zibilararen arabera. 2011ko abenduaren 31. (Geuk egina, Arabako Foru Aldundiaren datuak oinarri)



42. Grafika: Eguneko arretarako Landa Zentroen erabiltzaileak Mendialdean, sexuaren eta mendekotasun-mailaren arabera. 2011ko abenduaren 31. (Geuk egina, Arabako Foru Aldundiaren datuak oinarri)




Eguneko arretarako landa zentroak bateratuak, prebentiboak, asistentziakoak eta komunitarioak dira, egunean zehar eguneroko eta aisialdi eta denbora libreko jardueretan autonomia aldagarriko gradua duten adineko pertsonen zerbitzu ezberdinak emateko, euren etxean bizi-kalitate egokiarekin bizitzen jarraitzeko aukera ematen dien familia egitura edo laguntza sare informala dutenak.

2011ko abenduaren 31n eta 2016ko abenduaren 31n baliabide honetan 10 erabiltzaile zeuden, %60 emakumeak. Emakumeek, gainera, gizonak baino dependentzia gradu altuagoa zuten 2011n, %33k 3. gradua baitzuen. 2016an bi sexuetako erabiltzaileen %50ak dependentzia gradu hori zuen. Azkenik, erreferentziatzko bi urteetan emakume zein gizonak Maeztuko Eguneko Arretarako Zentrora eta Haranako Eguneko Arretarako Zentrora joan dira nagusiki. 2016ko abenduaren 31n gizon bakar bat zen Lagraneko Eguneko Arretarako Zentroko erabiltzailea.


2.3 ZAINKETA ERANTZUNKIDEAK

2.3.9 Adinekoentzako egoitza eta etxebizitzak eta egonaldi motzerako laguntzak


44. Grafika
Mendialdeko
Kuadrillako Zentro
Okupazionalaren
erabiltzaileak,
sexuaren arabera.
2011 eta 2016 (Geuk
egina, Arabako Foru
Aldundiaren datuak
oinarri)



45. Grafika
Mendialdeko
Kuadrillako Egoitzen
erabiltzaileak sexuaren
arabera. 2011 eta 2016
(Geuk egina, Arabako
Foru Aldundiaren
datuak oinarri)



46. Grafika: Mendialdeko Kuadrillako Zentro Okupazionalaren
erabiltzaileak, sexuaren eta adinaren arabera. 2011 eta 2016 (Geuk egina,
Arabako Foru Aldundiaren datuak oinarri)




2011 amaieran zein 2016 amaieran 19 izan dira adineko egoitzen eta etxebizitzan erabiltzaileak. 2011. urteko erabiltzaileen %58a emakumeak ziren bitartean, 2016an adineko erabiltzaileak pareko dira sexuari dagokionean.

Adinari dagokionez, erreferentziazko bi epeetan emakumeak 80 urtetik gorakoak dira. Gizonen artean, ordea, aniztasun handiagoa dago: 2011ko urtarilaren 31n %50ak 80 urte baino gehiago zituen, eta 2017ko abenduaren 31n %66ak 70 urte baino gehiago, eta %33k 50-70 urte artean.

2.3 ZAINKETA ERANTZUNKIDEAK

47. Grafika: Mendialdeko Kuadrillako Dependentsia Zentroen erabiltzaileak, sexuaren arabera. 2011 eta 2016 (Geuk egina, Arabako Foru Aldundiaren datuak oinarri)



Egoitzen erabiltzaileen adinekoen dependentsia graduaren gainean eskuragarri dauden datuek haxe diote:

- Emakumeak dependentsia gradurik altuena duen kolektiboa dira, 2011ko abenduaren 31n erabiltzaileen %63,6 eta 2016ko abenduaren 31n %33,3k 3. gradua baitzuen.
- 3. graduko dependentsia duten erabiltzaileak %50 ziren 2011ko abenduaren 31n eta %0 2016ko abenduaren 31n.
- 2016ko abenduaren 31n erabiltzaileen dependentsia maila jaitsi dela ikusi da, izan ere, emakumeen %55,5 eta gizonen %44,4 0 eta 1. graduko dependentsia zuen.

2011n bi pertsonek eta 2016an pertsona batek jaso zuten Egonaldi Motzeko Laguntza. Guztiak 80 eta 87 urte arteko emakumeak izan ziren. Horietako bik 1. graduko dependentsia eta beste bik 2. Graduko dependentsia zuten.

2.3 ZAINKETA ERANTZUNKIDEAK

2.3.10 Ezgaitasuna duten pertsonen autonomia laguntzeko baliabide okupazionala eta zaintzaileei laguntza emateko programak.

“Zaintzeko zaindu” familiak laguntzen dituen programa bat da, adinekoak bere inguruan mantentzeko xedez, helburu hauek dituzten ekintzen bidez:

1. Dependentsia duen adineko pertsona bere inguruan eta bere senideekin ahalik eta denbora gehien mantentzea.
2. Zaintzeko eta norbere burua zaintzeko moduetan sare naturala lagundu: norbere burua zaintzen ikasi besteak zaindu ahal izateko.
3. Zaintzaileari informazioa eman: laguntzeko tresnak eta eskuragarri dauden baliabideak ezagutu.

4. Esperientzia profesionaletan eskuratutako diziplina anitzeko ezagutza teknikoak partekatu, sare naturalaren ezagutza, behar, zailtasun, betetasun eta egiteko moduekin, elkarrekin hobekuntzak bilatzeko elkarrekiko laguntza prozesu batean.

Baliabide hauek ditu: etxez etxeko laguntza psikologikoa, elkarrekiko laguntza taldeak eta senide zaintzaileen formazioa.

Arabako Foru Aldundiaren datuen arabera, 2011n zein 2016an Arabako Mendialdeako kuadrillan ez zuen inork laguntza psikologikoa eskatu. Dena den, 2011n 10 pertsonak (9 emakume eta gizon 1) eskatu zuten elkarrekiko laguntza taldeetan parte hartzeko. 2016an ez zen talderik osatu parte hartzailerik ez zegoelako.

Aztertutako datuen arabera, adierazi dute 2011n eta 2016an bi gizonek erabili zutela minusbaliotasuna duten pertsonen autonomia laguntzeko baliabide okupazionala. Batek 53 urte zituen eta besteak 58. Biek zuten 1. graduoko dependentsia.

2.3 ZAINKETA ERANTZUNKIDEAK

2.3.11 Elkarrizketa gizarte langilearekin

kuadrillako Gizarte Langileak AFAko aplikazio bat du. Bertan, Aldunditik datozen programen eskari eta prestazio guztien izapidetzea erregistratu behar du, horien artean dependentzia legearekin lotutakoak. Baina ezin ditu datuen ustiaketa egin, ustiaketa hori egiten omen duen programak ez duelako funtzionatzen. Beraz, kuadrillari dagozkion datuen gaineko edozein kontsulta Aldundiari bidali beharko zaio.

Gainera, aplikazioan ez dira erregistratzen txosten edota deribazio bat behar duen eskari bat sortzen ez duten eskaerak, eta AFAko programei lotuta daudenak. Beraz, erregistratzen ez diren eskaerak daude, eskuz espediente bat irekitzen ez bada behintzat.

Informazioaren sistematizazioaren gaineko zailtasunek, gehiegizko lanarekin batera, duela urte batzuk kuadrillako oinarritzko gizarte zerbitzuen memoriarik ez egotea ekarri dute.

Informazioaren sistematizazioaren inguruko hutsune honek Gizarte Zerbitzua bezalako eremuetan erabakiak hartzean informazioaren dimentsio estrategikoaren falta agerian jartzen du. Hau da, erabakiak ez dira oinarritzko gizarte zerbitzuetara hurbiltzen den herritarren analisitik sortzen, ez delako existitzen analisi hori modu zehatzean egiteko aukera ematen duen informazioaren kudeaketa. Are gutxiago genero ikuspegia barne hartzen duen analisi bati buruz ari bagara.

Beraz, berriz ere agerian geratu da informazioaren kudeaketan laguntzen duten tresnak izateko beharra, horrek datu-bilketa lana bikoiztea suposatu gabe -erakunde bakoitzak teknikariei informazioa euren aplikazioetan erregistratzeko eskatzen dielako-. Horregatik, oinarritzko gizarte zerbitzuen informazioaren kudeaketak instituzioen arteko koordinazioa beharko du.



2.4 HEZKUNTZA ETA EUSKERA



2.4 HEZKUNTZA ETA EUSKERA

2.4.1 Hezkuntza (hezkuntza maila)


Diagnostikoaren kapitulu hau bi azpi-ataletan egituratuta dago, bakoitza bere atalekin:

✓ Hezkuntza azpi-atala. Bertan, kuadrillako haur, gazte eta helduek besteren artean hezkuntza maila ezberdinetan izandako parte-hartzeari buruzko datuak aurkeztu eta aztertu dira.

✓ Euskara azpi-atala. Bertan, errealitate soziolinguistikoari buruzko datuak ematen dira eta kuadrillan Euskararen erabilera sustatzeko baliabideen gainean eskuragarri dauden datuak ezagutarazi dira.

2016ko urtarrilaren 1ean Arabako Mendialdeako KUadrilako herritarren %89,3 lehen mailako, bigarren mailako eta ikasketak profesionalak ditu (Arabako herritarren %74,5k hezkuntza maila berdina du). KUadrilako datuak Arabako datuekin alderatuta, ikus daiteke kuadrillan lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen ehunekoa 12 puntu baino gehiago igo dela. Hezkuntza maila altuenei dagokienean, goi-mailako ikasketak dituzten pertsonen artean probintzian ehuneko sei puntu baino gehiagokoa da aldea.

48. Grafika. Biztanleria, hezkuntza-mailaren arabera. 2016ko urtarrilaren 1a (Geuk egina, Eustaten datuak oinarri)




2.4 HEZKUNTZA ETA EUSKERA

2.4.2 Hezkuntza (hezkuntza maila eta sexua)

Sexuaren arabera eta 2010 eta 2016. urteak alderatuta, hauxe ikus dezakegu:

- Erreferentziazko bi urteetan emakume eta gizonak lehen mailako hezkuntza mailan pilatzen dira batez ere.
- 2016an goi-erdi-mailako eta goi-mailako ikasketak dituzten bi sexuetako pertsonen ehunekoak gora egiten du, hezkuntza maila hauek dituzten emakumeen ehunekoa gizonena baino altuagoa bada ere: emakumeen %9,5 eta gizonen %4,1ek du goi-erdi mailako ikasketak. Goi-mailako ikasketen kasuan, emakumeen ehunekoa %9koa da 2016an eta gizonena %7,2koa.

49. Grafika: Mendialdeko Kuadrillako 10 urteko eta adin horretatik gorako biztanleria, ikasle ez dena, prestakuntza-mailaren eta sexuaren arabera. 2010 eta 2016. (Geuk egina, Eustaten datuak oinarri)



2.4 HEZKUNTZA ETA EUSKERA

2.4.3. Hezkuntza (Haur Hezkuntza eta Lehen eta Bigarren Hezkuntza Zentroei buruzko panoramika)


Atal hau 2017an egindako “Indarkeria Matxistaren egoeraren Diagnostikoa” oinarri hartuta egin da. Dokumentu horretan Arraia-Maeztuko Maeztuko HLHI eta Kanpezuko Mendiialdea IPIri buruzko informazio zehatza ematen da. Haurtzaindegien informazio zehatzik ez dugu, ordea.

Arabako Mendiialdean honako hezkuntza zentro hauek daude:

12. Taula . Mendiialdeko Kuadrillako ikastetxeak. (Geuk egina, “Indarkeria Matxistaren egoeraren diagnostia” oinarri)

Ikastetxe mota	Z	Herria
Haurtzaindegiak	3	Arraia-Maeztu, Bernedo eta Kanpezu
Haur eskolak eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	1	CEIP Maeztu HLHI Arraia-Maeztun
Haur eskolak eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	1	CPI Mendiialdea IPI Kanpezun

50. Grafika: Arraia-Maeztu et Ipi Mendiialdea HLHIPetako ikasleak (Geuk egina, “Indarkeria Matxistaren egoeraren diagnostia” oinarri)




Informazioa dugun bi hezkuntza zentroetan 252 ikasle daude guztira. Hauetatik 121 neskak dira (%48) eta 131 mutilak (%52).

2.4 HEZKUNTZA ETA EUSKERA


2.4.4 Hezkuntza (Haur Hezkuntza eta Lehen eta Bigarren Hezkuntza Zentroei buruzko panoramika)

51. Grafika: Arraia-Maeztuko ikaslegoa hezkuntza mailaren arabera (Geuk egina, “Indarkeria Matxistaren egoeraren diagnosia” oinarri)”



Eskola zentro bakoitzean berrikusitako datuen arabera, Maeztuko HLHIn zein Mendialdea IPIIn ikasle gehienak lehen hezkuntzako ikasketak egiten ari dira. Bigarren hezkuntzara pasatzen den kuadrillako ikasleen zati bat Gasteizera joaten dela azpimarratu behar da.

52 Grafika: IPI Mendialdeko ikaslegoa hezkuntza mailaren arabera (Geuk egina, “Indarkeria Matxistaren egoeraren diagnosia” oinarri)”



Eskola zentroetako soldatapeko langileen osaerari dagokionez, azpimarratu behar da Mendialdea IPIk zuzendaria, bi ikasketa-buru eta idazkari batez osatutako zuzendaritza taldea duela (guztiak emakumeak). Gainontzeko langileak 26 emakume eta 5 gizon dira, irakasleak, sukaldeko langileak, zaintzaileak, etab.

Bestalde, Maeztuko HLHiko irakasle taldea 19 pertsonen osatzen dute, hauetako 10 emakumeak eta 9 gizonak.

2.4 HEZKUNTZA ETA EUSKERA

2.4.5. Hezkuntza (Indarkeria Matxistaren aurrean nola jardun)

Dagoeneko aipatu dugun “Indarkeria Matxistaren egoeraren Diagnostikoan” bi eskola zentroetako zuzendariekin elkarrizketa egin zen, indarkeria matxistaren inguruan zuten ikuspuntua eta eskoletan prebentziotik arazo hau nola jorratzen ari den baloratzeko. Ondorio garrantzitsuenak azpimarratu ditugu:

- ✓ Mendialdea zentroko zuzendariak dio indarkeria matxistaren gainean formazio oso oinarritzkoa jaso duela, eta alor honetan zein hezkuntza partekatuan formazio sakonagoa jasotzeko beharra helarazi du. Maeztu zentroan “Berdintasunean hezitzen. genero indarkeriaren aurkako hezkuntza” formazioa jaso dute, AGLerena (Arabako Gizarte Laneko Elkartea).
- ✓ Elkarrizketatuek zentroetan eman daitezkeen indarkeria egoerak izendatzeko arazoak dituzte.
- ✓ Erasoaren marka fisikorik ez dagoenean adierazleak hautemateko zailtasunak ere dituzte. Beraz, kasu hauetan, egoera identifikatzeko arazoak dituzte.
- ✓ Bi zentroetan indarkeria kasu argiak eman dira, bai zentroko ikasleei zuzendutakoak baita ama bati zuzendutakoak ere.
- ✓ Zentroetan emandako gertakari guztien barne erregistroa izan ohi dute.

Indarkeria Matxistaren prebentziorako eskola zentroetan egindako jardunak:

- Azken 3 urteetan bi zentro hauetan ez da indarkeria matxistarekin lotutako tailerrik egin. Bizikidetza proiektuan zeharka jorratzen den gaia den arren, azaldu da ikasleek ez dutela indarkeria aitortzeko gaitasunik.
- Bi zentroetako batek Arabako Foru Aldundiak sustatutako “Hitz Kolpez” kanpainan parte hartu du, eskola-jazarpen eta ziber-jazarpenaren inguruan sentsibilizazioa helburu duena, gazteen artean ematen den genero indarkeriarekin lotuz.
- Zentroetako batean Indarkeria Matxistaren aurkako kartelak daude, eta bestean ez.
- Oroitzapenezko egunetan jarduerak egin ohi dira.

Zailtasun nagusiak

- Indarkeria matxista kasuak hautemateko zailtasunak
- Ematen ari den indarkeria mota sailkatzeko zailtasunak, indarkeria matxista den edo bizikidetza-gatazka den

KOORDINAZIOA: Eskola zentroek kuadrillako Gizarte Langilearekin harremana dute, osasun langileekin, komunitate prebentzio teknikariarekin, arreta psikologikoko foru Zerbitzuarekin, kuadrillako Berdintasun Teknikariarekin, Berritzegunearekin, eta, batzuetan, Udaletxeko zinegotziren batekin.

2.4 HEZKUNTZA ETA EUSKERA

2.4.6. “Mendialdea IPI” Gurasoen Elkartearekin elkarriketa

Arabako Mendialdeako kuadrillan modu koordinatuan lan egiten duten bi Guraso Elkarte daude. Adibidez, bi Guraso Elkarteek elkarrekin antolatzen dituzte eskolaz kanpoko ekintzak. Batez ere, kirol jarduerak -multi-kirola, areto-futbola, eskalada eta patinajea- eta jarduera kulturalak -musika, marrazkia eta ingelesa-.

KOORDINAZIO DINAMIKEI DAGOKIENEZ

Guraso Elkarteek harreman estua dute eskola zentroekin, eta batzuetan Guraso Elkarteak gelan ikasleekin lantzeko proposamenak egiten ditu. Hala ere, hezkuntza partekatuarekin lotutako jarduerak normalean zentroek antolatzen dituzte modu autonomoan, eta ondoren jakinarazten dizkiete Guraso Elkartei.

Guraso Elkarteek eta kuadrillako Berdintasun Zerbitzuak ere harreman zuzena dute, oraindik formalizatu ez den arren.

BERDINTASUNA SUSTATZEARI DAGOKIONEZ

Egindako elkarriketan adierazi da kuadrillako Guraso Elkarteetako langileak ikasleen artean ematen diren jarrera eta jokaera matxistak direla eta kezkatuta daudela. Honekin lotuta, adierazi da oso goiz barneratzen diren jarrera eta jokaerak diren arren, bigarren hezkuntzan azaleratzen direla eta eraso zuzenagoak sortzen dituztela.

Orokorrean, “berdinen arteko” eraso-jarrera eta jokabideen aurrean kezka dago. Izan ere, identifikatu diren egoerei erantzuna emateko jarduera ezberdinak egin dira, adibidez, 2018rako egutegi bat egitea, gai nagusia baloreak dituen eta AFAk sustatutako kirolean oldarkortasuna prebenitzeko tailer bat.

Adierazi behar da “berdinen arteko” erasotzat jotzen dituztenen artean, horietan ematen diren harremanen eragina eta genero rolak identifikatzeko zailtasuna ageri dela.

2.4 HEZKUNTZA ETA EUSKERA

GURASO ESKOLAREN GAINEAN

Guraso Eskola Prebentzio Sozio-komunitarioko Zerbitzuak antolatzen du. Egindako elkarrizketan baloratu da Eskola honek antolatutako jardueretako parte-hartzea oso altua izan ohi dela, genero berdintasunarekin lotutako edukiak faltan bota badira ere.

KOORDINATUTAKO ESTRATEGIARI DAGOKIONEZ

Elkarrizketan positiboki baloratu da kuadrillako ikasleen artean genero indarkeriaren prebentziorako eta berdintasuna sustatzeko ildo bat martxan jartzea Guraso Elkartean, kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren, Prebentzio Sozio-Komunitarioko Zerbitzuaren eta eskola zentroen arteko koordinazioaren bidez.

Horretarako, garrantzitsua da ikasleengan bakarrik ez, baizik eta irakasle, familia eta kuadrillako adingabeei zuzendutako eskolaz kanpoko eta aisialdi eta denbora libreko begiraleengan ere eragitea.

.


2.4 HEZKUNTZA ETA EUSKERA

2.4.6 Euskara (errealitate soziolinguistikoa)

EUSTATEN 2011ko datuen arabera, kuadrillako herritar gehienek (%90) ama-hizkuntza gaztelania da, euskara %3rentzat eta gaztelania eta euskara %4entzat. Araban, euskara ama-hizkuntza duen herritarren ehunekoa ere oso txikia da, %4.

Etxean hitz egiten den hizkuntzarekin lotuta, 2011ko datuen arabera kuadrillako herritarren %92k gaztelaniaz hitz egiten du etxean, %3k euskaraz, %4k bietan eta %1ek beste hizkuntza batzuk hitz egiten ditu. Berriz ere Arabako eta kuadrillako euskalduntze tasa antzekoa da.

53. Grafika . Biztanleria, ama-hizkuntzaren arabera. Mendialdeko Kuadrilla eta Araba. 2011. (Geuk egina, Eustaten datuak oinarri)



2.4 HEZKUNTZA ETA EUSKERA

2.4.7 Kuadrilako Euskara Sustatzeko Zerbitzua

Arabako Mendialdeako kuadrillak Euskara Sustatzeko Zerbitzua du, funtzio hauek dituena:

- Euskararen erabilera sustatu jarduera ezberdinen bidez.
- Euskara herritar talde guztietara hurbildu.
- Euskararen erabilera sustatu hauren artean eskolaz kanpo.

Zerbitzu honen barruan kuadrillan Euskararen erabilera sustatzeko 2014-2018 Planaren barruko jarduera ezberdinak egin dira, kuadrillako Batzordeak 2014ko abenduaren 17an onartutakoa. Planak marko orokor bat eskaintzen du, Udaletan, kuadrillan eta herritarrengan orokorrean euskara sustatzeari lotutako ekintzek osatua.

Plana urteko kudeaketa planen bidez operatibizatzen da, Planaren 11 jarduera eremuak

barne hartzen dituztenak:

54. Grafika . Euskararen erabilera sustatzeko Planaren eragin esparruak 2014-2018



2.4 HEZKUNTZA ETA EUSKERA

2.4.9 Euskara Sustatzeko Zerbitzua teknikariek alderatu

Informazio kualitatiboa ezagutzeko zerbitzu honetako teknikariek elkarrizketa bat egin zen. Lortutako informazio garrantzitsuena azpimarratuko dugu:

KUADRILAKO BESTE ZERBITZUEKIN ETA UDALEKIN KOORDINAZIOARI DAGOKIONEZ

- Euskararen erabilera Sustatzeko Planaren garapena udalerriekin elkarrizketa baten bidez egiten da, urteko planak udalerri bakoitzeko errealitateari egokitzen zaizkiolako. Honi dagokionez, adierazi da udalek orokorrean udal estrategia lehenesten dutela eta kuadrilla mailako estrategia bigarren maila batean geratu ohi dela.
- Udalerriekin elkarrizketa alkatetzen, zinegotzigoen eta idazkaritzen bidez egiten da normalean. kuadrilla mailan elkarrizketa zerbitzu gehienekin egiten da, baina puntuala da eta ez dago formalizatua. Kuadrilako Berdintasun Zerbitzuarekin lotuta, adierazi da elkarrizketa jarraitua dela, baina informala.

SISTEMATIZAZIOA

Datuak biltzeko prozesua ez dago sistematizatua. Duela gutxi sexu aldagaia sartzen hasi da datu-bilketan, baina informazio hori ez da memorietan jaso edo aztertu.

BERDINTASUNA SUSTATZEA

Kuadrilako euskara teknikariak euskara politika eta programetan genero ikuspegia sartzearen gaineko formazio espezifikoak jaso zuen, AFAK eskainitakoa. Adierazi du formazio hau alor honetan egiteke dagoen lana ikusteko baliagarri izan zitzaiola.

Gaineratu du bere lanean genero berdintasuna sustatzen saiatzen dela, batez ere, antolatzen dituen jardueretan partaidetza parekidea sustatuz, ordutegiak aintzat hartuz bateratzea laguntzeko eta hizkuntza eta irudiak sexistak ez izatea zaintzen.

Aurrera egin ahal izateko eta jarduera puntualetatik haratago joateko planteatu da beharrezkoa dela koordinatutako lanerako eta genero ikuspegia zeharkako moduan sartzeko aukera ematen duen marko eta planifikazio bat izatea. Era berean, baloratu da gaitasun jarraitua ere oinarritzakoa dela.

Azkenik, adierazi da denbora falta eremu zehatz honetan genero ikuspegia sartzeko beharrezkoa den lana egitea zailtzen duen oztopo garrantzitsua izan daitekeela.

la interlocución es constante aunque informal.



2.5 EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA



2.5 EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

2.5.1 Gizarte Ongizateko Foru Institutuak arreta emandako emakumeak


Kapitulu hau egiteko ondorengo dokumentua kontsultatu da: “Arabako Mendialdeako kuadrillan Indarkeria Matxistaren egoeraren diagnostikoa”, 2017an egindakoa. Lurralde Historikoko kuadrilla guztietan (Gasteizen izan ezik), hau bezalako diagnostikoak egin dira, biktimen arretan zein indarkeriaren prebentziorako egokiak diren politika publikoak sortzeko. Diagnostiko hauek Arabako Foru Aldundiko Berdintasun, Kooperazio eta Kulturartekotasun Zerbitzuak hala eskatuta egin dira, eta kuadrilla bakoitzarekin kolaboratuz.

2013-2015 epealdian 5 izan dira GOFlak eskainitako baliabide berezietako batean behintzat arreta jaso duten kuadrillako emakumeak.

Adinen arabera, bat 18 urtetik beherakoa, bi 70 urtetik gorakoak eta beste bi 30 eta 40 urte artekoak. Arreta emandako bost emakumeetatik bi atzerritarrak ziren.

13 Taula: Indarkeria matxista jasaten duten emakumeentzako arreta zuzena IFBSeK eskainitako (Geuk egina, “Indarkeria Matxistaren egoeraren diagnostia” oinarri)

55. Grafika: IFBSeK Mendialdeko Kuadrillako emakumeei emandako arreta 2013-2015 (Geuk egina, “Indarkeria Matxistaren egoeraren diagnostia” oinarri)



Indarkeria motaren arabera, bi kasu genero indarkeriaren ingurukoak izan ziren eta gainontzeko hirurak etxeko indarkeri kasuak. Horietako bik bakarrik salatu zuten jasaten ari ziren indarkeria. Erabilitako GOFlaren baliabideei dagokienez, lauk arreta psikosoziala jaso behar izan zuten eta batek esku-hartze psiko-sozio-educatiboko zerbitzua eta genero indarkeriaren biktimen gizarte laguntza eskatu zuten.

Errekurtsoa	Azalpena
Harrera etxebizitzak	20 plazako 4 pisu eskaintzen ditu Arabako Lurralde Historikoko 7 kuadrilletatik 6rentzat
Esku-hartze sozio-educatiboko eta gizarte laguntza zerbitzua.	Harrera pisuetan behin egon diren eta atera diren eta babes agindu batekin edo beste egoitza alternatiba batekin euren etxeetan dauden emakume eta adingabeei ematen zaie..
Arreta psikosoziala	Genero indarkeriaren biktima izan diren emakume eta adingabeei, gizon erasotzaileei eta biktima ez zuzenei arreta psikosoziala ematen die. Sarrera Oinarrizko Gizarte Zerbitzuaren bidez kudeatzen da, baina baita norberaren ekimenez edo beste erakunde batzuk bidalita ere (polizia, lehen mailako osasun arreta, etab.).
Arreta sozio-juridikoa	Emakumeei epaiketa aurreko orientazio juridikoa eta familia zuzenbidearen ingurukoa ematen die, eta bestalde, genero indarkeria dela eta prozesu juridikoen jarraipena egiten du.




2.5. EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

2.5.2 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek arreta emandako emakumeak eta SATEVI

2014-2016 epealdian guztira 9 emakumek jo dute Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara, horietatik 4 2016an. Sei kasu genero indarkeriagatik izan ziren eta beste 3 etxeko indarkeriagatik edo familia barruko indarkeriagatik. Azpimarratu beharra dago Indarkeria Matxistaren egoeraren Diagnostikoan adierazi dela 2016an egin zen Arraia-Maeztuko diagnostikoan Gizarte Ongizaketetik lortu ziren datuak (hau da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek arreta emandako kasuak), ez doazela bat Gizarte Langileak 2017. urteko diagnostikoa egiteko lortutakoekin. Horrek baliabide hauetara hurbiltzen diren kuadrillako emakume kopurua eta profila zehaztasunez ezagutzeko zerbitzu ezberdinen arteko koordinazioa hobetzeko beharra adieraz dezake

56. Grafika: Gizarte zerbitzuen arreta jaso duten emakumeen kopurua Mendialdeko Kuadrillan 2014-2016 (Geuk egina, "Indarkeria Matxistaren egoeraren diagnosia" oinarri)



SATEVI zerbitzu autonomikoa eta doakoa da, urteko 365 egunetan 24 orduz arreta ematen duena, eta 900 840 111 telefonoaren bidez eskuragarri dagoena. Zerbitzua genero indarkeriaren, etxeko edota sexu indarkeriaren biktimei zuzenduta dago, eta laguntza emozionala, informazioa eta orientazioa ematen die. Biktimen senideak eta laguntzaileak eta komunitate baliabideetako profesionalak ere hurbildu daitezke. **Azken lau urteetan zerbitzu honek kuadrillatik 35 dei jaso ditu 2013-2016 epealdian:** 4 2013an, 6 2015ean eta 25 2016an. 2016an deiak zerbitzu honen esku-hartze intentsiboa behar zuen emakume bakar batenak izan ziren.

2.5 EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

2.5.3 Ertzaintzak arreta emandako emakumeak

Ondoren, Ertzaintzaren etxeko indarkeria/genero indarkeria Unitateak salaketa jarri ostean irekitzen dituen espediente berriak aurkeztuko dira, kasu bakoitzari arreta emateko eta jarraipena egiteko.

Familia barruko edo etxeko indarkeria dela eta irekitako espediente guztiak 2013. urtekoak dira: 3 espediente salaketatik eta 3 biktimizazio

14. taulan ikus daitekeenez, lehen adierazitako epean Ertzaintzak 6 espediente berri ireki zituen kuadrillan. Hauetatik 3 genero indarkeria kasuak izan ziren (bakoitza urte batean), eta horietatik 4 biktimizazio zenbatu ziren.

14. Taula. Ertzaintzak ireki dituen espediente berriak 2013-2016 irailera arte
(Geuk egina, "Indarkeria Matxistaren egoeraren diagnostika" oinarri)

INDARKERIA MOTA	2013	2014	2015	Iraila. 2016
Biktimizazioen espedienteak	E-V	E-V	E-V	E-V
IBikoteak eta bikote ohiak erangindako indarkeria	0 - 0	1 - 1	1 - 2	1 - 1
Familia barruko indarkeria	3 - 3	0 - 0	0 - 0	0 - 0
Totala	3 - 3	1 - 1	1 - 2	1 - 1

2.5 EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

2.5.4. Indarkeriatik ateratzeko ibilbideak

Ondoren 2013-2015 epealdian baliabideren batean laguntza eskatu duten genero indarkeriaren biktima eta familia barruko indarkeriaren biktima izan diren emakume kopurua adieraziko dugu..


GENERO INDARKERIA: Genero indarkeria kasuetan zerbitzu publikoren batean laguntza eskatu duten emakumeen ibilbideak identifikatu ahal izateko 2013-2015 epealdia hartu da kontuan, zerbitzu guztietako bateratutako datuak dauden epealdia delako. Bikoiztasunak alde batera uzteko aukera ematen duen egindako kalkulutik abiatuz, ondorioztatu da hiru zerbitzuek (GOFI, OGZ eta Ertzaintza) guztira 5 emakumeei eman zieten arreta genero indarkeria dela eta. 5 emakume hauek hiru ibilbide jarraitu dituzte: poliziarena, soziala (kasu honetan Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eta GOFIaren menpeko espezializatutako zerbitzuek modu ezberdinean arreta emanik), eta mistoa (non salaketaz gain espezializatutako baliabideren batera joaten den).

15 Taula. Indarkeria kasuengatik emakumeei emandako laguntza urtearen eta zerbitzuaren arabera 2013-2015 (Iturria: 2017 Indarkeria diagnostikoa)

Petición de ayuda Violencia de Género	2013	2014	2015
IFBS	1	0	1
SSB	0	1	1
ERTZAINZA	0	1	1

5 emakume hauetatik 3k ibilbide soziala aukeratu dute, batek ibilbide mistoa eta beste batek ibilbide poliziala.

57. Grafika. Indarkeriaren emakumezko biktimek egindako laguntza-ibilbideak 2013-2016 (Iturria: 2017ko Diagnostikoa)



2.5 EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA


ETXEKO/FAMILIA BARRUKO INDARKERIA: 2013. urtean Ertzaintzak 3 espediente berri ireki zituen etxeko/familia barruko indarkeria dela eta, baina kasu horiek ez ziren OGZetan edo espezializatutako zerbitzuetan (GOFI) artatuak izan. Hurrengo urteetan Ertzaintzak ez zuen espediente berririk ireki, baina OGZek eta espezializatutako zerbitzuek indarkeria mota hau pairatzen ari ziren emakumeei arreta eman zieten (zehazki, 3 emakume zerbitzu bakoitzean). Bi zerbitzu hauek artatutako kasuak gehitzen baditugu, guztira 6 kasu dira. Baina 6 kasu hauetako bi antzekoak dira, bat 2014koa eta bestea 2015ekoa. Horrela, guztira OGZen eta espezializatutako zerbitzuen artean etxeko/familia barruko indarkeria dela eta artatutako 4 emakume izango lirateke.

16. Taula: Familiarteko indarkeria eta etxeko indarkeriagatik emakumeei emandako laguntza urtearten eta arreta zerbitzuaren arabera. 2013-2015 (Iturria: 2017ko diagnostikoa)

Petición de ayuda Violencia domestica Intrafamiliar	2013	2014	2015
IFBS	0	1	2
SSB	0	2	1
ERTZAINZA	3	0	0

Etxeko/familia barruko indarkeria dela eta artatutako 7 emakumeei genero indarkeria dela eta artatutako emakumeen joera berdina dute. Hau da, ibilbide soziala aukeratzen dute: proportzio handiagoan (7tik 4k) jotzen dute gizarte zerbitzuetara (oinarrizkoak edo espezializatutakoak) Ertzaintzara beharrean (7tik 3k).

58. Grafika: Indarkeriaren emakumezko biktimek egindako laguntza-ibilbideak 2013-2015 (Iturria: 2017ko Diagnostikoa)



2.5 EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

2.5.5 Kuadrilako eta udalerrietako teknikariek indarkeria matxista baloratzea

Arabako Mendialdeako Kuadrilako 2017ko Indarkeria Matxistaren Egoerari buruzko diagnostikoa egiteko prozesua bitartean, 10 pertsonen 5 elkarrizketa egin zitzaizkien (5 alkatetza, 3 zinegotzigo, kuadrillako Gerentea eta Presidenteak). Ondoren, elkarrizketa horietan jasotako elementu klabeetako batzuk laburbildu dira:

- ✓ Elkarrizketatutako pertsona batzuk indarkeria mota ezberdinak identifikatzeko eta zehazteko aukera ematen dien indarkeria matxistaren inguruko terminologia egokia zehazteko eta erabiltzeko zailtasunak dituzte.
- ✓ Orokorrean, landa eremuetan genero rola nabariagoak direla eta indarkeria matxista normalizatuagoa dagoela uste da.
- ✓ Politikarietako batzuk, euren udalerrian indarkeria kasuak ezagutzen ez dituzten arazo hori existitzen ez dela uste dute.
- ✓ Gazteengatik kezkatuta daude, jarrera eta jokabide matxistak erreproduzitzen jarraitzen dutela uste dutelako.
- ✓ Adineko emakumeengatik ere kezkatuta daude, bizi dezaketen isolamendua dela eta indarkeria egoera posibleak identifikatzea zailagoa delako. Gainera “besteek esan dezaketenagatik” zerbitzuetara laguntza eske joatea zaildu dezake.
- ✓ Indarkeria matxista kasuen aurreko erantzunarekin lotutako jokaera tresna eta jarraibideak izatea ezinbestekoa dela uste duenik ere badago. Aldiz, kasu bat ematen denean jardutearekin eta erantzuna planifikatzearekin nahikoa dela ere planteatu du beste norbaitek. Hala ere, politikari gehienek sententzia da ez dakitela indarkeria matxista kasu batzuen aurrean eman beharreko erantzun instituzionala zein den, eta egokia den erantzun publikoa ematen ez jakiteak kezkatzen ditu.
- ✓ Politikari batzuk uste dute garrantzitsua dela politikarien, oinarritzko Gizarte Zerbitzuen eta kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren arteko koordinazioa hobetzea, elkarrekin eta modu koordinatuan jarduteko.
- ✓ Orokorrean, baloratu da politikari zein teknikarien formazio espezifiko beharrezkoa dela.

2.5 EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

2.5.6 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen balorazioa

Arabako Mendialdeako Kuadrilak osatzen duten 6 udalerrientzako Gizarte Langile bat du.

kuadrillan indarkeria matxistari buruzko diagnostikoa egiteko prozesuan gizarte langilearekin egindako elkarriketatik ondorengo alderdiak laburbildu daitezke:

- ✓ Gizarte Langileak GOFlak eskainitako genero indarkerian formazioa jaso du, eta adierazi du AFAREN laguntza jarraitua duela.
- ✓ Modu positiboan baloratu ditu indarkeria pairatzen duen emakumeari arreta ematera zuzendutako baliabideak. Hala ere, adierazi du beste erakundeen informazio liburuxka gehiegi egoteak nahasmena sor dezakeela.
- ✓ Herriko jendeari ezagutzen duten indarkeria kasu bat salatzeraz Zerbitzura jotzea kostatzen zaiola dio. Gainera, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen funtzio, erabilera eta funtzionamenduaren gaineko ezjakintasuna existitzen dela adierazi du.

- ✓ kuadrillan oinarrizko gizarte zerbitzuetara eta espezializatutako zerbitzuetara heltzen direnak baino kasu gehiago dagoela uste du.
- ✓ Adierazi du babesgabetasuna sentitu duela kasuen gaineko informazio gehiago lortzeko erasotzailearekin hitzordua jartzean.
- ✓ Dituen zailtasun nagusiak hauek direla dio: bizilagun batek esanda biktima dela jakin duen emakume batekin esku-hartzea jorratzeko tresna falta, biktima eta erasotzailea elkarrekin bizitzen jarraitzen direnean edo emakumeak laguntza nahi ez duenean.

2.5 EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

2.5.7 Osasun langileen balorazioa

Kasu honetan, kuadrillako Lehen Mailako Arreta Unitateko osasun langileei egin zitzaien elkarrizketa. 7 pertsonak parte hartu zuten (3 erizain, 3 mediku gizon-horietako bat Unitate Burua -JUAP- eta mediku emakume bat). Egindako elkarrizketetatik hauxe azpimarratu dezakegu:

- ✓ Elkarrizketatuen artean indarkeria matxistaren gaineko mitoetako batzuk oraindik ere indarrean daudela identifikatu da, hala nola, salaketa faltsuak, gizonen babesgabetasuna edo kasu hauetan emakumeen aldeko diskriminazio positiboa ematen dela.
- ✓ Ez dute artatutako indarkeria matxista kasuen erregistrorik.
- ✓ Ez dakite duela hilabete batzuk, telefonoak aldatu zituztenetik, telefono bidezko itzulpen zerbitzuak funtzionatzen duenik.
- ✓ Osasun langileek diote ez dituztela ezagutzen indarkeria pairatzen duten emakumeei zuzendutako baliabideak.

- ✓ Etxean ematen diren tratatu txarren eta emakumeen aurkako sexu-indarkeriaren aurrean dagoen osasun protokoloak indarkeria fisikoa dagoen kasuetan jarraitu beharreko prozedura argi eta garbi azaltzen duela diote. Baina adierazi dute indarkeria psikologikoaren kasuan ez dagoela hain argi.
- ✓ Emakumea pairatzen ari den indarkeria egoera identifikatzen ez duen kasuetan eta indarkeria fisikoa ez dagoenean identifikatzeko tresna nahikorik ez dutela baloratu dute.
- ✓ Indarkeria egoeran urte asko daramaten adineko emakumeek normalizatu egin dutela eta ikusten ez dutela diote. Seme-alabei jakinarazi zaien kasuetan, hauek ere normalizatu dute “beti izan da horrela” esanez.
- ✓ Larrialdietako koordinazioa hobetu behar dela uste dute.

2.5 EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

2.5.8 Ertzaintzaren balorazioa

Ertzaintzari egindako elkarrizketan Guardiako komisariako genero/etxeko Indarkeria Unitateko arduradunak eta segurtasun eta ikerketa buruordeak parte hartu zuten.

- ✓ Elkarrizketa horretatik honako balorazio hauek laburbildu ditugu:
- ✓ Genero/etxeko Indarkeria Unitateko arduradunak ondorengo alorretan formazio espezifikoa jaso du: dilijentziak nola egin, indarkeria pairatzen duten emakumeak artatzeko modua, arriskuaren balorazioak egitera bideratutako formazio teknikoa. Gainera, urtero emakumeen harreraren gaineko formazioa jasotzen dute.
- ✓ Adierazi dute landa eremuan herritarrekin harremanak hurbilekoak direla, salaketa jarri duen pertsona komisariara joan ezin bada patruila bat bere etxera edo pertsona horrek dion lekura hurbildu daitekeelako.

✓ Ertzaintzak Emakunderekin batera informazio ekintzak egin ditu kuadrillan. Eta positiboki baloratu dituzte ekintza horiek, herritarren Zerbitzuaren hurbilketa handiagorako aukera ematen dutela uste dutelako.

✓ Kuadrilan indarkeria pairatzen duten emakumeenganako laguntzak (arreta psikologikoa, etxebizitza, lan eremukoa...) minimoak direla uste dute, eta Gasteizera joateko garraio publikoa ez dela egokia, laguntza gehienak dauden tokia.

✓ Ertzaintza eta Gizarte Langilearen arteko koordinazioa positiboki baloratu dute.

✓ Kasuen jarraipena egitea zailtasun garrantzitsua dela adierazi dute, gai zehatz batzuen menpe egoteak eta aldizkako arrisku balorazioak emakumeentzat deserosoak direla badakitelako.

✓ Zonaldean adingabeei arreta emateko zerbitzu bat egotea beharrezkoa dela uste dute, Loremaitea bezalakoa (haurtzaindegi zerbitzua).

2.5 EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

2.5.9 Kuadrilako teknikariek indarkeria matxista baloratzea

Herritarrengandik hurbil daudenez indarkeria egoerak hauteman ditzaketen eta sentsibilizazio eta prebentzio ekintzak egin ditzaketen zerbitzuei ere elkarrikeria egin zitzaion: Zerbitzu Soziokulturala eta Kirol Zerbitzua, Komunitate Prebentzio Zerbitzua eta azkenik, Ekonomiaren Sustapen zerbitzua.

Ondoren, elkarriketatik ateratako elementuetako batzuk azpimarratu dira:

- ✓ Elkarriketatuek ez dituzte ezagutzen emakume bat indarkeria pairatzen ari dela adierazten duten adierazleak. Gainera, esan dute eremu pribatuan ezkutatutako egoerak direnean intuizioa eta emakumeei buruz ezagutzen dutena erabiltzen dutela indarkeria pairatzen ari direla ondorioztatzeko.
- ✓ Herrietan kasu hauek hautematea zailagoa dela diote, ezkutatzen direlako askotan ageriko sekretua bada ere.
- ✓ kuadrillan ez da indarkeria matxistaren prebentziorako tailerrik egin. Lamingorriak talde feministak egindako jardueraren bat bakarrik egin da.

- ✓ Prebentzio Komunitarioko Zerbitzuak Arraia-Maeztu eta Santikurutze Kanpezuko hezkuntza zentroetan sexu-harremanei buruzko tailerrak antolatzen ditu urtero. Horietan, berdinen arteko harremanak eta ardura eta lan banaketa jorratzen dira.
- ✓ kuadrillan Berdintasun Teknikaria lanean hasi zenetik martxoaren 8an eta azaroaren 25ean kuadrilla mailako kanpainak burutu dira.
- ✓ Elkarriketatuek Kanpezuko Udaleko emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako udal Ordenantza eta Arraia-Maeztun egin zen Berdintasun diagnostikoa ezagutzen dute, baina uste dute udalen ekintzak eraginkorrak izan beharko lirakekeela eta tresna horiek eraginkorrak izateko baliabide gehiago eman beharko lirakekeela.

2.5 EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

2.5.10 Eskola zentroen indarkeria matxistaren balorazioa

Eskola eremuan bi elkarrizketa egin ziren: bat, Kanpezuko Mendialdea IPIko eskola zentroko zuzendariarekin eta bestea Arraia-Maeztuko Maeztu HLHIko zuzendariarekin. Egindako elkarrizketetatik haxe azpimarratu dezakegu:

- ✓ Elkarrizketatuek adierazi dute ikasleek batzuetan jarrera matxistak bizikidetzaz arazoekin nahasten dituztela. Kasu hauetan ez dakite ematen diren egoerak nola izendatu.
- ✓ Zentroetako batean hainbat indarkeria gertakari eman dira: neska batek sexu-erasoa jasan zuen, irain matxistak eta ziber-biolentzia kasu bat. Ikasle baten amak genero indarkeria pairatzen ari dela ere badakite.
- ✓ Zentroetako batek adierazi du ikasleen arteko indarkeria kasuetan ez dela indarkeria matxista direnen eta ez direnen artean ezberdintzen, neurriak berdinak direlako eta ez dakite erantzun egokia zein izango litzatekeen.

- ✓ Bi zentroek indarkeria kasuen erregistroa dute.
- ✓ Azken 3 urteetan bi zentro hauetan ez da indarkeria matxistarekin lotutako tailerrik egin.
- ✓ Zentroetako batek “Hitz Kolpez” kanpaina burutu zuen, baina ez dute argi eskola-jazarpena edo indarkeria matxista lantzen zuen.
- ✓ Zailtasun nagusietako bat kasuen identifikazioa da.

2.5 EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

2.5.11 Ehun asoziatiboaren indarkeria matxistaren balorazioa

Elkarte hauei egin zitzaaien elkarrizketa: kuadrillako bi guraso elkarteei talde elkarrizketa bat, eta banakako hiru elkarrizketa Aguake elkarteari, Asociacion Cultural de la Mujer Kanpezana-ri eta Lamingorriak elkarte feministari.

Ondoren, egindako elkarrizketetatik ateratako ideia nagusiak laburbildu dira:

- ✓ Lamingorriak elkarte feministarentzat kuadrillako emakumeak ikusarazteak lehentasuna du, horietako asko isolatuta bizi direlako. Gaineratu dute populazio nukleoa gero eta isolatuagoa dagoenean patriarkatuaren pisua are handiagoa dela. Egoera honek kasu askotan indarkeria matxista ezkutatuta egotea sortzen du.
- ✓ Lamingorriak elkarte feministaren arabera, herrietan indarkeria normalizatzen da alkoholari egotziz, bikote gatazkak direla esanez edo biktima errudun bihurtuz ere.
- ✓ Guraso Elkarteetatik adierazi da genero berdintasunaren gaia interesatzen zaiela eta kuadrillako Berdintasun Zerbitzuarekin batera gai hau osotasunean landu nahi dutela.

- ✓ Elkarrizketatutako Guraso Elkarteetako batean Gasteizko genero indarkeriaren biktimen arretan lan egiten duen emakume batek parte hartzen du. Gainera, ama batek Clara Campoamor Elkartearen egiten du lan. Horregatik, Guraso Elkarteek indarkeria pairatzen duten emakumeei zuzendutako zerbitzu eta laguntza ezberdinak ezagutzen dituzte.
- ✓ Guraso Elkartearen arabera herritar guztiek, eta bereziki adineko emakumeek, ulertuko duten protokolo bat egitea beharrezkoa da. Era berean, mugikortasunean eta garraioan dauden zailtasunak direla eta oinarrizko zerbitzu eta baliabideak eskuratzeko zailtasunaren gaia jorratzea ezinbestekoa dela uste dute.
- ✓ Aguake elkarteko elkarrizketatutako emakumeen ustez, landa-eremuko adineko jendeak uste du eremu pribatuan gertatzen dena ez dela publikoki agertu behar. Gertakari horrek indarkeria matxista identifikatzea eta horri erantzuna ematea zailtzen du.
- ✓ Mujer Kanpezana elkarteko emakumeek adierazi dute genero rolen presioa bizi izan dutela emakumeen elkarte bat osatzeagatik.

2.5 EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA

2.5.12 Hurrengo pausoak

Kuadrilako indarkeria matxistaren egoeraren diagnostikoan eta emakume eta gizonen egoeraren diagnostiko hau egitean, indarkeria matxistaren eremuan jorratu beharreko behar ezberdinak identifikatu dira.

Indarkeria matxistaren prebentzioa eta pairatzen duten emakumeen arreta hobetzea barne hartzen duen prozesu oso bat martxan jartzeari begirako aukerak ere identifikatu dira. Honi dagokionez, adierazi beharra dago kuadrilla mailako Berdintasun Zerbitzua martxan jartzeak prozesu horren lidergoa bermatzen duela, klabe diren eragile ezberdinen parte-hartzea eta koordinazioa sustatuz.

Ondoren, identifikatutako beharretako batzuk laburbilduko ditugu.

- ✓ Politikarien, teknikari eta profesionalen eta, orokorrean, herritarren artean indarkeria matxistaren gaineko mito eta sinesmen faltsuek indarrean jarraitzen dutenez, indarkeria matxistaren inguruko ildoak indarkeria matxista mota ezberdinen, arrazoen eta landa-eremuan duen eraginaren gaineko sentsibilizazio eta gaitasunerako jarduerak barne hartzea beharrezkoa da.

- ✓ Arreta emandako emakumeen gaineko informazioaren sistematizazioan gabezi garrantzitsua identifikatu da. Egoera honek sistematizazio hori modu argian eta datuak biltzean lana bikoiztu behar ez izatean laguntzen duten tresnak izateko beharra mahai-gaineratu du.

- ✓ Indarkeria matxista mota ezberdinak identifikatzeko zailtasuna dela eta, beharrezkoa da identifikazio hau errazten duten eragileei buruzko gaitasunaren inguruan lan egitea. Politikari eta teknikariek behar duten gaitasuna zein herritarrek eta arreta zuzena lantzen duten profesionalak behar dutena.

- ✓ Indarkeria pairatzen duten emakumeei arreta zuzena ematen dieten eragile ezberdinen arteko koordinazio espazio bat sortzea garrantzitsua da, jakintzak, esperientziak eta zailtasunak partekatzeko eta arreta koordinatua hobetzen duten elkarrekiko irizpideak adosteko.

- ✓ Ezinbestekoa da kuadrillan eman daitezkeen indarkeria kasu ezberdinei erantzun koordinatua eta elkarrekikoa ematea.



2.6 OSASUNA



2.6 OSASUNA

2.6.1 Arabako Mendialdeako kuadrillako osasun baliabideak

17 Taula: Osasun zentroen kokapena udalez udal Mendialdeko Kuadrillan.
(Iturria: guk egina indarkeri diagnostikoaren datuetatik)

Udala	Arreta non dagoen
Lagran eta Bernedo	Bi udalerri hauetako biztanleak Bernedoko Kotsultategira doaz.
Harana eta Kanpezu	Bi udalerri hauetako biztanleak Kanpezuko osasun zentrora doaz.
Arraia-Maeztu	Udalerri honetako biztanleak doazen kotsultategia du.
Urizaharra	Udalerri honek lehen mailako Arreta Unitate ezberdina du, "Valle 2" deitutakoa, eta Añanako Kuadrilakoa da.

Kuadrilak Kanpezu-Arabako Mendialdeako Lehen Mailako Arreta Unitatea du. Unitate hau Kanpezun dagoen erreferentziako kotsultategi batez eta Bernedon eta Arraia-Maeztun dauden kanpoaldeko hainbat kotsultategiez osatuta dago.

Gainera, 17. taulan adierazi den bezala, Lehen Mailako Arreta Unitateak 5 udalerri barne hartzen ditu. Osasun zentro hauen arreta ordutegia 08:00tatik 15:00ak arte da. Gauez, asteburuetan eta jaiegunetan Unitateko guardiako langileek arreta ematen dute. Arraia-Maeztu eta Bernedoko osasun zentroak aniztasun funtzional fisikoa duten pertsoneri arreta emateko egokituta daude, baina Kanpezukoa ez (udalerrian beste osasun zentro bat eraikitzen ari da).

kuadrillan Adikzioen Prebentzio Komunitarioko Teknikaria ere dago.

2.6 OSASUNA

2.6.2 Osasunaren egoera Euskadin

Emakunde-Emakumearen Euskal Institutuak egindako “Emakume eta Gizon kopuruak Euskadin” azken txostenen arabera, garrantzi handia du generoak osasunaren dimentsio ezberdinen gainean duen eragina aintzat hartzea.

Emakundek aztertutako 2013-2016 datuek ondorengo errealitatea erakusten dute:

18. Taula: Emakume eta gizonen osasunaren egoera Euskadin. 2013-2016. (Geuk egina, 2013, 2014, 2015 eta 2016ko kopuruak oinarri,)

Emakume eta gizonen osasunaren egoera Euskadin (2012-2015)	
Osasunarekin lotutako bizi-kalitatea	• Adin tarte guztietan emakumeen bizi-kalitatea okerragoa da. Ezberdintasuna adinarekin eta ikasketa maila baxuagoa duten taldeetan areagotzen da. .
Osasunaren auto-pertzepzioa	• Emakumeek euren osasunaren gaineko pertzepzio negatiboagoa dute, genero distantzia handienak kualifikatu gabeko pertsonen artean ematen dira.
Gorputz-masaren indizea	• Herritar gehienek pisu maila normala dute. Gizonen %13,9k eta emakumeen %12.
Osasun arriskuak	• Tabako kontsumoa: adin tarte guztietako gizon eta emakumeen artean murrizten ari da (45-74 emakumeak salbu). Emakumeen artean gutxiago murriztu da. Hala ere, emakumeek gizonak baino gutxiago kontsumitzen jarraitzen dute. • Alkohol kontsumoa: Alkoholarekin lotutako osasun arazoak izateko epe luzerako arriskuak handiagoak dira gizonen artean, murriztu badira ere. Arrisku hauek apur bat gora egin dute emakumeen artean. • Droga legalak eta legez kanpokoak noizean behin kontsumitu: gizonak horrelako kontsumo motak gehiago egiten dituzte aztertutako sustantzia guztietan, batez ere kanabisa eta gainontzeko legez kanpoko drogekin, psikofarmakoen erabilerari dagokionean salbu. Horietan, emakumeen noizean behingo kontsumoa altuagoa da. Orokorrean, eta kanabisa ez diren legez kanpoko drogak salbu, gizonak emakumeak baino lehenago hasten dira kontsumitzen. Termino erlatiboetan, ezberdintasun handiena alkoholaren kasuan dago. • Sedentarismoa gehiago ematen da emakumeen artean.
Ospitaleratzeak	• Emakumeak: nerbio-sistemaren eta zentzuen organoen gaixotasunak. Haurdunaldiak eta erditzeak ere emakumeen ohiko ospitaleratzeak sortzen dituzte. • Gizonak: digestio eta zirkulazio aparatuko gaixotasunak.

2.6 OSASUNA

2.6.5 Osasun datuen interpretazioa

Aurretik aipatu den bezala, oinarritzkoa da esku-hartzen ari garen errealitatearen genero analisi bat egiteko aukera ematen digun informazioa biltzea, analisi horretatik sustatu nahi den berdintasunaren planifikazio estrategikoa elikatzeko.

Osasun arloan analisi hau egiteko aukera ematen digun informazioaren sistematizazioa ezartzeko, bildu beharreko oinarritzko informazioaren gaineko proposamen bat aurkeztuko da ondoren

19. Taula: Osasunaren inguruan hartutako datuak Berdintasun Politiko Publikoak sustatzeko helburuarekin (Guk egina)

Datuak	Informazioa
Osasun baliabideen erabilera sexu arabera	Erakusten digute zein den biztanleriaren orokorreko osasun maila.
Osasun sexualaren eta erreproduktiboaren zerbitzuen eta errekurtsoen deskribapena	Hardunaldi prozesue eta erditze prozesuen inguruan Kuadrillan dauden errekurtsoak ezagutzen laguntzen digute. Baita, identifikatzen laguntzen digute zeintzuk diren zerbitzu sexologikoetara eta zer motatako kontsultak egiten dituzten.
Borondatezko haurdunaldi etetea	Ezgutzen laguntzen digute zein den zerbitzu hauetara jotzen duten emakumeen perfila (Nazionalitate, adina, ikasketa maila, lan arloa eta abar)
Drogenpenpekotasunera ko arreta	Ezgutzen laguntzen digute zein den menpekotasuna duen pertsonaren perfila sexuaren, adinaren eta ikasketa mailaren arabera. Gainera, sexuaren arabera banatutako parte hartze datuak laguntzen digute genero inpaktua zein den ezagutea.



2.6 OSASUNA

2.6.6 Osasuna eta politika publikoak

Kuadrilan egiaztatu ezin izan dugun arren, baieztatu daiteke orokorrean emakumeek gehiago erabiltzen dituztela osasun zerbitzuak. Horrek emakume eta gizonek arrazoi berdinegatik eta maiztasun berdinarekin ez gaixotzea ekartzen duten genero baldintzatzaileekin lotuta dago. Genero baldintzatzaileak genero rolekin eta emakumeek zaintza lan gehienak euren gain hartzeko lanen banaketarekin oso lotuta daude. Era berean, bizitzaren eremu askotan duten aitorpen urriak (ekonomikoa, soziala, harremanekoa, lanekoa, familiarra, etab.) eta norberaren zaintzarako denbora libre faltak emakumeak gaixotasunaren aurrean kolektibo ahulena bihurtzen dute (Emakunde, 2010).

Horregatik, osasunaren alorrean berdintasun politika publikoek maila askotan lan egitea garrantzitsua dela uste da:

- ❖ Genero ikuspegia osasunaren alorrean barne hartuz. Hau da, emakume eta gizonen beharrei begirada bereizgarria ezarri eta faktore biologikoez haratago pertsonen osasunean eragina duten faktore multzoa aintzat hartzeko aukera ematen duen osasun kontzeptuaren ikuspegi integrala sustatuz.
- ❖ Osasunaren eta hezkuntza esku-hartzearen arteko harremana sendotuz, hau da, oinarrizko hezkuntza mailetatik hezkuntza ez sexista sustatuz.

- ❖ Bizitzaren eremu ezberdinetan osasuna eta erantzukizun partekatuaren arteko harremana sendotuz, emakume eta gizonen bizi-kalitatea hobetzeko neurri gisa.

Bestalde, Sexu eta Ugalketa Osasunaren eremu zehatzean, politika publikoek sustatutako lan-ildoetako bat emakumeek euren sexu eta ugalketa osasunaren inguruan erabakiak hartzea handitzean datza. Horretarako, estrategia posible bat lurraldean existitzen diren baliabideak ezagutaraztea da, sexu hezkuntza eta hezkuntza afektiboaren eskaintza indartzeaz gain, kolektibo ezberdinen errealitatera egokituz (emakume eta gizon gazteak, emakume eta gizon helduak, beste herrialdeetako emakume eta gizonak, etab.).

Azkenik, generoak emakume eta gizonek drogekin duten harremana baldintzatzen duela aintzat hartu behar da. Zentzu honetan, genero rolak baldintzatzaileak direla jakin behar da: motibazioekin, efektuekin eta ezberdindutako ahultasunekin lotuta, gizon eta emakumeek adikzioak gainditzeko dituzten zailtasunekin lotuta, eta prebentzio estrategien eta asistentzia estrategien eraginkortasuna batzuekin eta besteekin baldintzatzen dituzten faktoreekin lotuta.

2.6 OSASUNA


2.6.7 Kuadrilen prebentzio sozio-komunitario zerbitzuak

Arabako Lurralde Historikoko 6 koadrilek prebentzio sozio-komunitarioko teknikariak dituzte 1988tik Gizarte Ongizateko Foru Institutuak sustatutako prebentzio sozio-komunitarioaren programaren markoaren barruan. Programa honen ardatz nagusietako batek osasun arriskuekin zuzenean lotutako eremu bat barne hartzen du. Hau da, drogen eta mendekotasuna sortzen duten sustantzien kontsumoa.

Teknikariek egiten duten lana gazteei zuzenduta dago batez ere, eta hiru esku-hartze ildo barne hartzen ditu:

- Eskola.
- Familia.
- Komunitatea.

59. Grafika: Preven-jaiaren egindako alkohol kontsumoaren test-ak (Guk egina 2015ko prebentzio soziokomunitarioko memoriatik)




Sexu-hezkuntza, gatazken konponketa, inteligentzia emozionala, jazarpenaren prebentzioa, teknologia berrien arriskuak, jokoaren adikzioa, elikadura-nahasmendua eta elikadura eta ohitura osasuntsuak bezalako eremuak ere barne hartzen dituzte, besteren artean.

Kuadrilako zerbitzu gehietan bezala, kasu honetan ere datuen sistematizazioan hutsune bat dago, emandako informazioaren genero analisia egitea zailtzen duena.

2015eko memorian sexuen arabera banatutako datu bakarrak Preven-jaia alkohola eta beste drogei buruzko informazio zerbitzuarenak dira. Datu horien arabera, 2015ean Arabako Mendialdeako kuadrillan alkohol kontsumoari buruzko 177 test egin ziren (guztiak Kanpezun), eta horien %38a neskei (67 guztira). Mutilen %45ak eta nesken %28ak alkohol tasa positiboa eman zuen.

60 Grafika: Egindako testen positiboen kopurua (guk egina prebentzio soziokomunitarioko memoriatik ateratako datuetatik 2015)





2.7 KULTURA ETA KIROLA



2.7 KULTURA ETA KIROLA

2.7.1. Koordinazio Soziokultural eta Kirol Zerbitzuaren funtzio eta helburuak

Diagnosticaren atal honetan kuadrillan kultura, kirol eta gazteria eremuan jarduerak ezartzearekin lotutako informazioaren berri emango dugu. Horretarako, dokumentu hauek izan ditugu oinarri:

- Koordinazio Soziokultural eta Kirol Zerbitzuaren 2015eko memoria
- 2017ko Arabako Mendialdeako kuadrillan Indarkeria Matxistaren egoeraren diagnostikoa
- 2016ko Emakume eta Gizonen egoeraren diagnostiko aurrekoa Arabako Mendialdeako kuadrillan
- Mendialdea Music Festivalen eraso matxisten aurreko jarduera protokoloa
- Koordinazio Soziokultural eta Kirol Zerbitzuko langileei egindako elkarrizketa

koordinazio soziokultural eta kirol zerbitzua soziokultura eta kirolean elkarrekiko jarduera bat egiteko beharrak sortu zuen, eskualdea osatzen duten udalerri eta gizarte eragileen behar eta eskariei erantzuna emateko, gizarte interlokuzio funtzioak egiteko eta elkarte, talde eta kolektiboen jarduna errespetatuz eta lagunduz.

Horretarako, Zerbitzuak bere programa propioak garatzen ditu, aldi berean udal bakoitzaren programak ere garatuz.

2016an 10 helbururen inguruan lan egin da, eta horietako batean emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea ageri da:

1. Esku-hartze soziokulturala eta kirol esku-hartze prozesuak proposatu eta eraginkor bihurtu.
2. Arabako Foru Aldundiak Kuadrillan garatzen dituen eremuko programetan kolaboratu eta horiek zabaldu.

3. KUadrilako gizarte eragile ezberdinen (udalak, elkarteak) arteko harremanak proposatu eta lagundu, baliabideak (ekonomikoak eta giza-baliabideak) optimizatzeko eta elkarrekiko ekintza soziokulturalak egiteko.

4. Gizartearekin, kulturarekin eta kirolarekin lotutako gai guztietan elkarte eta gizarte eragileei aholkuak eman.

5. Probintzia erakundeen eta erakunde autonomikoen eta Kuadrillako gizarte eragileen artean bitartekari lana ein.

6. Erakunde horiek programak KUadrilako lagundu eta hedatu, baita horien kontrol eta jarraipena egin ere.

7. Beste erakundeetako profesionalekin koordinatu elkarrekiko jarduerak egiteko eta esperientziak partekatzeko.

8. Banaka joan daitekeen ekimen eta programa orotan KUadrilako Udalen ordezkarik gisa aritu.

9. Kuadrillan euskaren erabilera sustatu eta hedatu.

10. Diseinatutako programak egitean emakume eta gizonen berdintasuna sustatu.

2.7 KULTURA ETA KIROLA

2.7.2. Koordinazio Soziokultural eta Kirol Zerbitzuaren Programazioa

Koordinazio Soziokultural eta Kirol Zerbitzuak lau programen inguruan garatzen ditu bere jarduerak: kultura programa, sustapen soziokulturalaren programa, kirol programa eta beste erakundeekin kolaboratzeko programa.

Azpimarratu beharra dago 2016an kultura programaren garapenaren bidez lortu nahi izan den lau helburuetako bat “landa emakumea jardueretan berdintasunean parte-hartzea sustatzea” izan dela.

Era berean, kirol programazioaren barruan “kirola bizi-estilo bezala sustatzea, emakumeen kolektiboaren artean batez ere” esaldiarekin lotutako helburu bat adierazi da. Ondoren, eremu honetan garatutako ekimenak laburki azalduko ditugu:

20. Tula: Mendialdeko Kuadrillako zerbitzu soziokulturalek garaturiko jarduerak. 2016. (Geuk egina, 2016ko memoria oinarri)

KULTURA PROGRAMA	SUSTAPEN SOZIOKULTURALEKO PROGRAMA	KIROL PROGRAMA	BESTE ERAKUNDEEKIN KOLABORAZIOA
- Argazki lehiaketa - Jarduera artistikorako hastapenak ikastaroa - Gabon eta Inauteri jarduerak - Antzerki eta musika programazioa (AFA) - Ekimenak - Ekipamendu maileguak - Haurrentzako udako aisialdia	- Adineko pertsonen sustapen soziokulturaleko programa - Gazteria programa	- Eskola Kirola - Kirol Parte-hartzailea eta Udako kirola - Kirol ekimen herrikoiak - Guraso Elkarreetako Eskola Kirola - Baskonia y Deportivo Aules	- Elkarrekin kolaborazioak - Tokiko erakundeekin kolaborazioak - Udalerriko beste erakundeekin kolaborazioak

2.7 KULTURA ETA KIROLA

2.7.3. Kultura programa

Kultura-programazioaren barruan 2016an ondorengo jarduerak egin dira:

A) Jarduera artistikorako hastapen ikastaroak: parte-hartzaileei modalitate artistiko ezberdinen oinarrizko teknikak ezagutaraztea du helburu, modu autonomoan egin ahal izateko. Zeramika, egurra zaharberritzeko eta abarreko ikastaroak egin dira. Memorian landa-emakumeak baldintza berdinetan parte hartzea sustatu nahi izan dela aipatzen da, baina ez dira horretarako martxan jarritako neurriak adierazten.

B) Argazkigintza ikastaroa: 100 argazki baino gehiago aurkeztu ziren, eta horiekin 2017ko egutegia egin da. Ez da parte-hartzaile kopurua adierazten.

C) Gabonetako eta Inauterietako jarduerak, guztira 100 hurrek parte hartu dute.

D) Ekimenak Atal honetan kuadrillako jaien koordinazioa eta programazioa sartu da: Antoñanako Eztiaren Azoka eta San Martin Azoka.

E) Udako haurrentzako aisialdia, Euskara Zerbitzuarekin batera, Jolas Tokiak eta Uda Dibertigarria programak garatu dira, besteren artean.

2.7 KULTURA ETA KIROLA

2.7.4. Sustapen soziokulturaleko programa

Soziokultura-programazioaren barruan 2016an ondorengo jarduerak egin dira:

A) Hirugarren Adineko gelak Hirugarren adinekoekin bi programa egin dira, Arluzea-Markinez zonaldean eta Kanpezu eta Arraia-Maeztuko udalerrietan. Hitzaldiak, zinema-saioak, kontzertuak, antzerkiak, tailerrak, bidai soziokulturalak eta abar egin dira. 150 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute.

B) Gazteria: Prebentzio komunitarioko teknikariarekin batera, ikastetxeekin lan egin da genero berdintasuna, kulturartekotasuna eta sustantzia kaltegarrien kontsumoari buruzko sentsibilizazio kanpaina ezberdinak egiteko. Era berean, Ur Sorospen Ikastaro bat egin zen gazteekin, lan aukerak zabaltzeko xedez.

2.7 KULTURA ETA KIROLA

2.7.5. Kirol programa

Kirol programazioaren barruan 2016an ondorengo jarduerak egin dira:

A) ESKOLA KIROLA: Eskualdeko ikastetxeekin batera igeriketa eta patinaje ikastaroak egin dira, kirol modalitate ezberdinak ezagutarazteko asmoz. 150 haurrek baino gehiagok parte hartu dute.

B) KIROL PARTE-HARTZAILEA ETA UDAKO KIROLA: atal honetan herritar guztiei zuzendutako kirol jarduerak sartu dira: kirol ikastaroak, udalekuak eta lehiaketak. 350 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute.

C) KIROL EKIMEN HERRIKOIAK: eskualdean egiten diren BTT Martxa Herrikoietan kolaboratu (Kanpezu, Pipaon, Izki eta Urizaharra), eta Vasco Navarro zeritzonaren Bide Berdean kirol jarduera ezberdinak, etab.

D) IKASTETXEETAKO GURASO ELKARTEEN ESKOLA KIROLA: Guraso Elkarteek antolatutako kirol jardueren jarraipena egiten da eta diru-laguntzen izapidetze eta eskarien kudeaketan laguntzen zaie.

E) BASKONIA ETA DEPORTIVO ALAVES: Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren Kirol Zerbitzuarekin batera kuadrillako udalerrietan Sailak kirol ekitaldi hauetara joateko eskaintzen dituen gonbidapenak banatzen dira.

2.7 KULTURA ETA KIROLA

2.7.6. Koordinazio Soziokultural eta Kirol Zerbitzuko langileei egindako egiaztapena

Informazio kualitatiboa lortzeko asmoz, diagnostiko prozesuan Koordinazio Soziokultural eta Kirol Zerbitzuko langileekin elkarrizketa bat egin zen. Lortutako informazio garrantzitsuena azpimarratuko dugu:

BESTE SAILEKIN KOORDINATZEARI DAGOKIONEZ

Egindako elkarrizketatik ondorioztatu da kuadrillako zerbitzu gehienekin harremana dagoela (Euskara, Berdintasun Zerbitzua, Prebentzio Soziokomunitarioa, Gizarte Langilea...). Hala ere, ez da harreman formala eta behar puntualen arabera da.

Klabe diren erakundeekin ere harreman zuzena dago: kultura eta kirol elkarteak, Guraso Elkarteak, Ikastetxeak, etab.

INFORMAZIOA SISTEMATIZATZEA

Bildu den informazioaren zati bat sexuaren arabera banatuta dago, baina ez dago sistematizatua. Beraz, ez da memorietan jasotzen eta ez da horietan aurkezten den informazioaren genero analisia egiten.

BERDINTASUNA SUSTATZEARI DAGOKIONEZ

Emakumeei zuzendutako jarduera asko Koordinazio Soziokultural eta Kirol Zerbitzuak antolatu ditu. Jarduera horien helburu nagusia kuadrillako emakume askok dispertsio geoGrafika eta garraioa lortzeko zailtasunak direla eta bizi duten gizarte isolamenduarekin amaitzea izan da.

Zerbitzu horrek antolatutako jardueretan emakumeei parte-hartzea ere sustatu da, eta hizkuntza ez sexistaren erabileraren inguruan lan egin da.

Eremu honetan garatutako programa eta jardueretan genero ikuspegia sistematikoki barne hartzeari begira, oinarritzkoa da esku-hartze ildo nagusiak ezartzen dituen marko eta planifikazio estrategiko bat izatea. Era berean, ezinbestekoa da ildo horiek ezartzearen inguruan gaitasuna izatea.

Con el fin de recabar información de carácter

2.7 KULTURA ETA KIROLA

2.7.7. Eraso matxisten aurreko jarduera protokoloa, pairatu dezaketen pertsonen arreta ematekoa eta Mendialdea Music Festival-en (MMF) barruan errespetuzko harremanak sustatzekoa

Mendialdea Music Festivala (MMF) ekimen herrikoia da, irabazi asmorik gabekoa. Bertan, norbanakoek, elkarteek eta tokiko eta eskualdeko erakundeek parte hartzen dute. Arabako Mendialdean musikaren inguruko espazio kultural bat eskaintzeko asmoz jaio zen.

2017an eraso matxisten aurreko jarduera-protokolo bat egin zen -Mendialdea Musika Elkartearen, Arraia-Maeztuko Udalaren, kuadrillako Berdintasun Teknikariaren eta Lamingorriak Elkarteko Feministaren laguntzarekin-, xede hauetarako:

- MMFan eraso matxistak jasan ditzaketen emakumeen arreta eman eta lagundu.
- Gizartea emakumeen aurkako zein beste kolektiboen aurkako -euren gizarte izaera, izaera pertsonala, nortasun izaera, ideologia...dela eta- indarkeriaren gainean sentsibilizatu eta kontzientziatu.
- Festibalean justizian, errespetuan eta indarkeria ezan oinarritutako harremanak sustatu eta lagundu.

Protokoloan eraso posibleen aurrean esku-hartzeko oinarri batzuk ezartzen dira: informazioa, konfidentzialtasuna eta zuhurtasuna, biktimizazioa minimoa izatea, erantzukizun eza eta ahalduntzea. Irizpide hauetan oinarrituta, protokoloak indarkeria pairatzen duten pertsonen arreta eman beharreko arreta eta laguntzarako pausuak zehatz-mehatz deskribatzeaz gain, harreman modu berriak -berdinen artekoak eta errespetuan oinarritutakoak- posible diren espazio bat lortzeko sentsibilizazio jarduera batzuk ezartzen ditu.

Hauek dira sentsibilizazio jarduerak horiek:

Flyer edo liburuxkak: batetik, eraso bat jasatekotan nora jo daitekeen adierazten du, eta bestetik, festibalean errespetuzko harremanak sortzeko garrantzia azaltzen du.

Pankartak: MMFaren logoa eta festibalean jarrera oldarkorrak edo edozein motatako jazarpenera onartuko ez dela azaltzen duen mezu bat duten pankarta ezberdinak egiten dira.

E

2.7 KULTURA ETA KIROLA

2.7.8. Kultura eta Berdintasun politikak

Kultur eremuko berdintasun politiketan lehentasuna du emakume eta gizonen presentzia berdina izateari arreta ematea, dimentsio anitzetatik: i) kultur sormen eta produkzioa, ii) kultur baliabideen kontsumoa; eta azkenik iii) eremu hauetan emakumeen presentzia mugatzen duten genero estereotipoak eta aurreiritziak (Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako V. Plana, Emakunde, 2010).

Aurretik adierazi dugun bezala, kuadrillan egun ez da banatutako datu-bilketa sistematikoa egiten, eta ez da programazio soziokulturalaren genero analisirik egin.

Informazio hau bereziki garrantzitsua izan daiteke kuadrillan ematen ari diren aurrerapenak hautemateko, baita hobetu daitezkeen alorrak identifikatzeko ere.

Bestalde, politika publikoen eremutik kultur baliabideak eskuratzeko sekzio arteko begirada bat ezarri behar da, diskriminazio mota anitz pairatzen duten emakumeen parte-hartzea sustatzeko jarduera ezberdinak martxan jartzeko aukera ematen duena, hala nola, emakume migratzaileak, pobrezia arriskua dutenak eta aniztasun funtzionala dutenak, besteren artean.

Era berean, genero harremanei atxikitako desberdintasunak baldintzatzen du kultur baliabideen kontsumoa, lanaren sexuaren arabera banaketa eta indarkeria matxistatik sortutakoak, adibidez. Emakumeek eremu hauetan parte-hartzea oztopatzen dituzten desberdintasunak.

Izan ere, Unescoren 2014ko “Gender Equality Heritage and Creativity” txostenean adierazten den bezala, “genero eta kultura” harremanaren gaineko gogoetak gai hau Giza Eskubideen ikuspegitik pentsatzera garamatza, eta bereziki, emakumeek Kultur Eskubideak eskuratzetik:

“Kultur eskubideak berdintasunean eskuratzeko emakumeak eta neskak bizitza kulturala eskuratzeko, parte hartzeko eta laguntzeko gaitasuna izatea exijitzen du. Horrek, kultura-ondarea zehazteko eta interpretatzeko eskubidea barne hartzen du; erabaki behar da zein ohitura, balore edo kultur praktika bere horretan gorde behar diren, zeintzuk aldaketekin mantendu behar diren eta zeintzuk erabat baztertu behar diren (Unesco, 2014. 7. Or.)”

2.7 KULTURA ETA KIROLA

2.7.9. Kirol instalazio eta baliabideak

21. Taulan ikus daitekeen moduan, Arabako Mendialdeako kuadrillak kirol instalazio ugari ditu, kuadrilla osatzen duten 6 udalerrietan banatuta. Udal instalazioez gain, kuadrillan Izkiko Parke Naturala (Korres), Golf Zelaia (Urturi), Vasco Navarro zeritzonaren Bide Berdearen Interpretazio Zentroa eta eskualdeko turismo informazio bulegoa (Antoñana), Nordic Walking Gunea (Kanpezu, Bernedo, Arraia-Maeztu), Etnografia Museoa (Urizaharra) eta Ignaziotar bidea daude. Arabako Mendialdean ere hainbat bisita antolatzen dira.

21 Tula: Mendialdeko Kuadrillako udalerrietako kirol-instalazioak. (Geuk egina, web-informazioa oinarri).

Udalerria	Kirol instalazioak
Arraia-Maeztu	Maeztuko Eskualdeko Eskola, Udal Igerilekua, futbol zelaia, frontoiak, bolalekuak, tiro-eremuak- ehiza-barrutia.
Kanpezu	Futbol zelaia, bolalekuak, udal frontoia, ibai-igerilekua, polikiroldegia eta Las Cruces igerilekua.
Bernedo	Golf, Futbol zelaia, bolalekuak, udal frontoia, ibai-igerilekua, polikiroldegia eta Las Cruces igerilekua.
Harana	Bolalekuak, frontoia eta igerilekua
Urizaharra	Udal Frontoia eta bolalekuak
Lagran	Frontoia eta Martin Fiz polikiroldegia.

2.7 KULTURA ETA KIROLA

2.7.10. Kirol datuen interpretazioa

kuadrillako kirol instalazioen deskribapena bakarrik egin dugu, ezin izan dugulako eremu honetan generoarekin lotutako kontu posibleak identifikatzeko informazioa lortu. Izan ere, ezin izan ditugu sexuen arabera banatutako eta sistematizatutako kirol zerbitzu eta ekitaldien erabilera eta parte-hartzeari buruzko datuak lortu.

Gai honetan sakontzeko, bildu beharreko datuen proposamen bat aurkeztuko da, identifikatu ahal den informazioa adieraziz: Más allá de la descripción de las instalaciones deportivas presentes en la cuadrilla, no ha sido posible recabar

22 Taula: Berdintasun Politika Publikoak sustatzeko asmoarekin bildutako datuak (Guk egina)

Datuak	Informazioa
Kirol instalazioen erabilera sexuaren arabera	Emakume eta gizonek baliabide hauek nola erabiltzen dituzten ezagutzeko aukera ematen digu, erantzuna ematen dien berdintasun politika bat sustatzeko ezinbesteko ezberdintasun posibleak identifikatuz.
Kirol ikastaroen programazioa	Kirol ikastaroen programazio ezagutzeko aukera ematen digu, edukiak genero ikuspegitik eta horien parte-hartzea sexuaren, adinaren, jatorriaren... arabera aztertzeako aukera.
Eskola kirola	Eremu honetan lantzen ari diren jarduerak ezagutzeko, edukiak genero ikuspegitik aztertzeako eta haur eta gazteen parte-hartzean eragina duten genero baldintzak aztertzeako aukera ematen digu.
Kirol diru-laguntzak	Diru-laguntzen barruan emakume eta neskak kirolean parte-hartzea sustatzen duten irizpideak existitzen diren identifikatzeko aukera ematen digute. Kiroletan baliabide ekonomikoak ematerako orduan desberdintasun posibleak identifikatzeko aukera ere ematen digu.

2.7 KULTURA ETA KIROLA

2.7.11. Kirola eta politika publikoak

Kirolean ematen diren genero desberdintasunak politika publikoetatik jorratu daitezke estrategia ezberdinen bidez:

- Kirol baliabide, zerbitzu eta instalazioen sarrera hobetuz, eta emakumeen behar eta interes estrategikoetara egokituz.
- Emakumeen presentzia kirol mota guztietan handituz, arreta berezia eskainiz parte-hartze kirola sustatzeari eta bereziki maskulinizatutako kirol diziplinei.
- Sexuaren arabera banatutako datuak sistematikoki bilduz. Informazio hau bereziki garrantzitsua izan daiteke kuadrillan ematen ari diren aurrerapenak hautemateko, baita hobetu daitezkeen alorrak identifikatzeko ere.
- Kirolean existitzen diren sinesmen eta balore matxistak landuz, kultura berri bat eta balore aldaketa sustatzeko, eredu berdina bat sortzen lagunduko duena.

Arabako Mendialdeako Kuadrillan kirolaren eremua aztertzeke aukera ematen duten datuak ez ditugun arren, EAE mailan egindako ikerketak ditugu. Hauen artean, ondoren Emakundek 2012an egindako “Generoaren arabera inpaktuaren ebaluazioa kirolean” eskola kirolaren gaineko txostenaren ondorio nagusiak azpimarratu ditugu.

Txosten honen arabera, eskolan kirolaren unibertsalizazioa eskolaz kanpoko kirol jardueretara ez da guztiz heldu, eta neska eta mutilen presentzian desorekak daudela hauteman da. Adibidez, 2012ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan %39,5 neskak izan ziren, eta %60,5 mutilak. Egokitutako kirolean aldea are handiagoa da, kasu horretan nesken parte-hartzea %17,5ekoa izan baitzen.

Orokorrean, zaila izan ohi da eskola kirol modalitate guztietan bi sexuen parte-hartzea bermatzea. Era berean, kategoria altuagoetan nesken parte-hartzeak behera egiten du. Nesken uzte-tasa handiagoa da eskola kirolek federatura pasatzean. Adierazitako dokumentuaren arabera, uzte hau neskek eredu eta estimulu falta dutelako da, eta euren behar eta egoeren arabera motibatzen dituen orientazio faltagatik. Horrek “segregazio horizontala” sortzen du, aurreragoko adinetan mantentzen dena.



2.8 INGURUMENA ETA INGURUNE IRAUNKORRA



2.8 INGURUMENA ETA INGURUNE IRAUNKORRA

2.8.1. Sarrera

Berdintasunari buruzko 2005eko Euskal Legeak botere publikoek euren politikek eta ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraio programetan genero ikuspegia barne hartzen dutela bermatzeko beharrezko baliabideak arbitratuko dituztela aurreikusten du, besteren artean pertsonen segurtasunarekin lotutako gaiak, etxeko lanak eta pertsonen zaintza lanak egitea errazteari eta bizitza pertsonala, familiarra eta lana bateratzeari lotutakoak, eta adierazitako politika eta programen diseinu eta gauzatzean emakumeen parte hartze handiagoa sustatzeari lotutakoak aintzat hartuz.

Oraindik egiteke bide luzea duten eremuak dira, horietan ematen diren errealitate eta egoeren genero ikuspegitik egindako analisi bat egiteko aukera ematen digun informazioaren eta ezagutzaren kudeaketatik hasita.

Arabako Mendialdeako kuadrillari dagokionez, atal honetan alderdi garrantzitsu baina oso orokor batzuk adierazi dira, ondorengo eremuekin lotuta:

- Mugikortasuna eta garraioa.
- Emakume eta gizonek etxebizitza eskuratzeko aukerak.

2.8.2. Mugikortasuna

Kuadrillan garraioa aintzat hartu beharreko gai garrantzitsuenetako bat da, herritarren dispersioa oso altua baita. Euskadiko Autonomia Erkidegoko gainontzeko udalerrietara joateko batz besteko denbora antzekoa da Kuadrillako udalerri guztietan, 57 minutu inguru. Arraia-Maeztutik apur bat txikiagoa da (51 minutu) eta Lagranetik handiagoa (63 minutu).

23. Taula Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako udalerrietara joateko batez besteko denbora (min.) 2007. (Geuk egina, Udalmap oinarri)

Udalerria	Minutuak
Arraia-Maeztu	51,23
Bernedo	61,14
Kanpezu	55,78
Harana	54,49
Lagran	62,59
Urizaharra	56,52

2.8 INGURUMENA ETA INGURUNE IRAUNKORRA

Gasteizera joateko batatz besteko denborari dagokionez, errepide nagusietara eta garraio publikoaren bidez, Lagran da kapitalera heltzeko denbora gehien behar duena (30 min) eta Urizaharra denbora gutxien (12 min). kuadrillan errepide nagusietara heltzeko denbora 16 minutukoa da batatz beste, baina oraingoan ere Lagran da urrutien dagoena.


24. Tula: Hiriburura, errepide nagusietara eta garraio publiko bidez iristeko batez besteko denbora (min.). 2007. (Geuk egina, Udalmap oinarri)

Udala	Hiriburua	Errepideak	Bataz besteko denbora
Arraia-Maeztu	15,9	15,2	4
Bernedo	27,6	19,8	3
Kanpezu	14,6	15,6	4
Harana	28,8	12,1	4
Lagran	30,2	21,4	3
Urizaharra	11,6	15	3

Egoiliarren mugikortasunari dagokionez, 2011ko Udalmap-eko datuen arabera Urizaharran lanean dauden egoiliarren %83k eta Arraia-Maeztu eta Lagraneko %70 inguruk beste leku batean egiten dute lan. Bernedo da etxetik kanpo lan egiten duten herritar gutxien zituen udalerria 2011n. 2001 eta 2011 artean kuadrillan lanean dauden artean lekualdatzeak %20 igo dira, Haranaren kasuan %30 baino gehiago. Era berean, adierazi beharra dago 2011n udalerri guztietan ikasleen lekualdatzeak %95 baino gehiago zirela.

Egoiliarren mugikortasunari dagokionez, 2011ko Udalmap-eko datuen arabera Urizaharran lanean dauden egoiliarren %83k eta Arraia-Maeztu eta Lagraneko %70 inguruk beste leku batean egiten dute lan. Bernedo da etxetik kanpo lan egiten duten herritar gutxien zituen udalerria 2011n. 2001 eta 2011 artean kuadrillan lanean dauden artean lekualdatzeak %20 igo dira, Haranaren kasuan %30 baino gehiago. Era berean, adierazi beharra dago 2011n udalerri guztietan ikasleen lekualdatzeak %95 baino gehiago zirela.

Grsfika 61. Okupatutako biztanleria 16 urte baino gehiago udalerritik kanpo lan egiten (%) . 2001 y 2011 (Udalmap-ek eginda)



2.8 INGURUMENA ETA INGURUNE IRAUNKORRA

2.8.3. Garraio publikoa

Beste ataletan adierazi dugun moduan, Arabako Mendialdeako kuadrillan dispartzio geografiko handia dago, 65 urte baino gehiagoko pertsonen ehuneko altuarekin (%30 baino gehiago 2016an, Udalmapen datuen arabera). Egoera hau dela eta, ezinbestekoa da genero ikuspegitik aztertzea garraio publikoa, kuadrillan bizi diren pertsonen, eta batez ere emakumeen, eskualdeko baliabideak baldintza berdinetan eskuratzeko aukera emateko antolatu den edo ez. Izan ere, horren menpe dago ere emakumeen kuadrillako bizitza soziokulturalean eta politikoan parte-hartze maila. 2017an egindako Indarkeria Matxistaren egoerari buruzko Diagnostikoa kuadrillan gai honen gainean galdetu zaie teknikariei zein elkarte batzuei. Hona iritzi azpimarragarrienak:

- Kontsultatutako elkarten arabera, gizarte-partaidetza maila baxua da, garraio publiko kaxkarra dela eta mugikortasun arazoak dituen zonaldea delako.
- Teknikariek kuadrillako garraio publikoaren eskasia konpontzeko garrantzia adierazi dute, kotxerik edo gidabaimenik ez duten emakumeen mugikortasuna eta baliabideetara heltzea mugatzen dituen faktorea.

- Gai honekin lotuta, diagnostikoan zonalde honetako isolamendu maila altua dela ondorioztatu da, eta kaltetuenak adineko emakumeak direla.

Ikasleen garraioa

Kuadrillak ikasleen garraioa kudeatzen du autobusen linea orokorrak erabilita. Autobus horiek Arabako Foru Aldundiaren Toki Administrazioaren departamentuak gestionatzen ditu, Zerbitzu horrekin ikasleei aukera ematen zaie bere formakuntzarekin jarraitzeko, baina bere erresidentzia mantenduz eta herrien biztanleriaren galera ekidituz.

2.8 INGURUMENA ETA INGURUNE IRAUNKORRA

2.8.4. Etxebizitza

2011ko Eustaten datuen arabera, kuadrillako etxebizitzaren %84,9 jabetzan daude. Horietatik %35 inguru ordaintzeke zeuden. Alokairu erregimenekoak guztizkoaren %6 dira. Datu hauek Arabarekin alderatuz, alde nagusiak herentzia edo dohaintza bidez emandako etxebizitzetan ematen dira, kuadrillan %20 baitira probintzia mailan %6,7 den bitartean.

25. Taula: EAEko familia-etxebizitza nagusiak, lurraldeen eta edukitze-araubidearen arabera. 2011. (Geuk egina, Udalmap oinarri)

	En propiedad				En alquiler	Cedidas gratis	En otra forma
	Total	Pagada	Con pagos pendientes	Por herencia o donación			
Araba / Álava	86,04%	51,26%	42,00%	6,74%	8,46%	1,41%	4,09%
Montaña Alavesa	84,98%	45,78%	34,70%	19,52%	6,28%	1,98%	6,76%

2.8.5. Ingurumen eta inguru jasangarriarekin lotutako berdintasunerako politika publikoak

HIRIGINTZA

EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako V. Planean adierazten den bezala, espazio publikoen konfigurazioak emakume eta gizonen bizi-kalitatean eragin ezberdina du. Lan produktiboaren eta erreprodukzio lanaren arteko alderaketak hiri planifikazioa eta garraioa erantzukizun partekatua sustatzen duen gizarte antolaketa bat errazteko klabe diren elementuak izatea dakar.

Politika publikoek erantzukizun partekatuko hiri planifikazioan laguntzeko ezinbestekoa da: i) espazio publikoak hobetzea, herritarren autonomia hobea bermatzen duten elementuekin egokituz; ii) zaintza lanak burutzen dituzten herritarren eta aniztasun funtzionala dutenen mugikortasun askatasuna mugatzen duten arkitektura-oztopoak ezabatu; iii) seguruak ez diren espazioak ezabatu, pertsonen -eta bereziki emakumeek- udalerrian eraso bat jasateko beldur izan gabe mugitzeko aske izateko.



2.8 INGURUMENA ETA INGURUNE IRAUNKORRA

MUGIKORTASUNA

Hiri espazioaren planifikazioa bezala, garraioaren planifikazioa ere oinarrizkoa da erantzukizun partekatua sustatzen duen gizarte antolaketan laguntzeko. Ikerketa ezberdinen arabera, emakume eta gizonen lekualdatzeetan ezberdintasunak daude: orokorrean, gizonak gehiago erabiltzen dute kotxea, emakumeek garraio publikoa, bizikleta edo oinez joatea nahiago duten bitartean. Berdintasun politika publikoen ustez, garraioaren kasuan, bi alderdi aintzat hartu behar dira: ibilbide eta ordutegiak egokitzea eta ibilgailuak baliabide hauek gehien erabiltzen dituztenen beharretara egokitzea. Jarduera hauek lekualdatzeen denbora murrizteko aukera ematen dute, eta mendekotasuna duten pertsonen autonomia handiagoa ere sustatzen dute, eta haur-kotxe eta gurgildun aulkiekin bidaiatzen duten zaintzaileen garraioa errazten dute (horietako asko emakumeak) (Emakunde, 2010).

ETXEBIZITZA

Etxebizitzari dagokionez, azpimarratu beharra dago 2015eko Etxebizitzaren Euskal Legeak genero ikuspegia maila guztietan barne hartzea exijitzen duela (etxebizitza eta hiri espazioa eta ekipamenduak orokorrean). Euskadiko etxebizitza politika gidatzen duten printzipioen artean, hauek daude:

- Erabakiak hartzeko eremu ezberdinetan gizon eta emakumeen ordezkaritza orekatua, berdintasunari buruzko legearen arabera.
- Jarduera produktiboak pertsonen bizitza pertsonalarekin eta familia bizitzarekin erantzukizunez bateratzeko aukera ematen duen hiri planifikazioa sustatu, erantzukizun partekatuko gizarte antolaketan lagunduz.

Gainera, 2005eko Berdintasunaren Euskal Legeak indarkeria matxistaren biktimak eta bazterketa egoeran dauden edo legeak aurreikusten duen behar egoeraren batean dauden emakumeek funts publikoekin finantzatzutako etxebizitzak esleitzean lehentasuna izango dutela aurreikusten du.



2.9 KULTURARTEKOTASUN A



2.9 KULTURARTEKOTASUNA

2.9.1. Kulturartekotasuna sustatzeko baliabideak

Atal hau egiteko kuadrillako udalek “Udal eta Koadrilentzako” finantzazio ildoaren barruan Arabako Foru Aldunditik 2012-2017 epealdian jaso dituzten diru-laguntzak aztertu dira. Azpimarratu beharra dago Udal eta Koadrilentzako diru-laguntzak Kulturartekotasun eta Genero proiektuetarako bakarrik aurreikusten direla, eta ez Garapenerako Kooperazio proiektuetarako. Zentzu honetan, ez dugu azken honi buruzko informaziorik.

Arabako Foru Aldundiko web orritik jasotako datuen arabera, 2012-2017 epealdian kulturartekotasun 6 proiektu diruz lagundu dira guztira Arabako Mendialdeako kuadrillako udalerrietan, guztiak Kanpezuko udalerrian.

Udalerri honek kulturartekotasunaren inguruko lana abiarazi zuen herriaren aniztasuna eta bizikidetzarekin lotutako udalerriaren errealitate eta egoeraren gaineko genero ikuspegitik egindako azterketa-analisi bat eginez.

Aipatu beharra dago 2015ean garatu zen eta lehen aipatutako diagnostikoaren ondoren egin zen kulturartekotasun Bizikidetzarako I. Udal Planaren ezarpena. Bizikidetzarako Udal Plana politikari, teknikari, ikastetxeetako eta elkarteetako langileekin egindako partaidetza prozesu bati eskeri garatu da.

Proiektu guztietan genero berdintasunaren sustapena aipatzen da, urte hauetan ikuspegi hau nola barneratu den aztertzeko tresnak ez baditugu ere.

26. Taula: Proiektuak: Kanpezuko Udalera emandako diru laguntzak kulturartekotasun arloan (Guk egin AFAko datuetatik)

Poiektuaren izena	Urtea
“Campezo por una convivencia intercultural” 7.413,30 €	2012
“Campezo por una convivencia intercultural.” 7.690,81 €	2013
“Campezo por una convivencia intercultural” 7.381,03 €	2014
“Plan Municipal para la Convivencia Intercultural en Campezo” 7.988,00 €	2015
Implantación, seguimiento y evaluación del I. Plan Municipal para la Convivencia Intercultural en Campezo”. 5.985,98 €	2016
“Sensibilización y lucha contra el racismo y la xenofobia en Campezo”. 8.000,00 €	2017

Iniciativa Bizilagunak

En 2016 la cuadrilla de Montaña Alavesa se suma a la iniciativa de convivencia intercultural Bizilagunak – iniciativa organizada por CEAR-Euskadi en colaboración con la DFA –.

El objetivo de esta iniciativa es que surjan amistades entre personas de diferente origen cultural y se superen recíprocamente prejuicios y estereotipos. La iniciativa consta en que dos familias de origen cultural diferentes se reúnan en casa de una de ellas para compartir espacio y conocerse.



2.10 PREKARIETATEA ETA GIZARTE BAZTERKETA



2.10 PREKARIETATEA ETA GIZARTE BAZTERKETA

2.10.1. Pobreziaren egoera EAEn

Emakunderen “Emakume eta gizon kopuruak Euskadin - 2015” txostenak dioen bezala, herritarren pobrezia maila eta oinarritzko beharrei aurre egiteko diru-sarrerarik ez izatea gizarte baliabideen sarrera eta kontrola ezagutzeko erreferente nagusietako bat da.

EAEn, pobrezia eta prekariedade egoerak 2014ko Gizarte Zerbitzuen Eskari Inkesta-Gizarte Beharren Inkestatik abiatuta kalkulatu dira, eta Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen egokitutako modulu batetik abiatuta (EPDS-2014). Ondoren, emaitzetako batzuk adierazi dira:

- 2014an mantentze pobrezia-tasa %8,2koa zen, 2008an %5,7ra heltzen ez zen bitartean.
- Pilatze pobrezia-tasa 2008an %1,5 izatetik 2014an %2 izatera pasa da.
- Benetako pobrezia-tasa 2008an %4,2 izatetik 2014an %5,9 izatera pasa da, hau da, 1,7 puntu igo da.
- Ongizate gabezi tasa 2008an %8,2 izatetik 2014an %11,5 izatera pasa da.

Emakume eta gizonen arteko ezberdintasunei dagokienez, adierazi da emakume kopurua handiagoa dela egoera guztietan. Distantzia gehiena benetako ongizate gabezia ematen da, ehuneko 11,2 puntuko aldearekin.

Como señala el informe “*Cifras 2015 – Mujeres y Hombres en*

Definizio batzuk:

Mantentze pobrezia: Oinarritzko beharrak epe laburrean estaltzeko baliabide ekonomiko gabezi egoera (elikadura, etxebizitza, arropa eta zapata gastuak).

Pilatze pobrezia: Epe luzean minimoa den bizi-maila mantentzeko beharrezkoak diren kontsumo ondasun iraunkorrak eskuratzeko etxe ezgaitasuna (epe luzerako bizi-baldintzak eta etxeen erreserba ondarean).

Benetako pobrezia: Pobreziaren dimentsio ezberdinetan (mantentzea edo pilatzea) agertzen diren oinarritzko beharren estaldura nahikoa ez izateko arrisku egoera kasuak, eguneroko bizitzan nahikoa konpentsatuta ez daudenak, pobreziaren bizipenaren besteren ongizate gutxieneko maila lortzeko.


Ongizate falta: Gizarte zehatz batean gizarte horretako bizi motan, ohituretan eta ohiko jardueretan gutxieneko parte-hartzea izateko beharrezkotzat jotzen diren gastuei epe laburrean aurre egiteko baliabide ekonomiko falta.

2.10 PREKARIETATEA ETA GIZARTE BAZTERKETA

2.10.2. Arabako Mendialdeako Kuadrillan Errenta Pertsonalaren Garapena

Errenta pertsonal osoa, 18 urtetik gorako pertsona ororentzat, lan errentak, jarduera ekonomikoetatik sortutako errentak, gizarte transferentzia edo prestazioak eta kapitaletik jasotakoak - higigarriak (banku kontuen interesak, bonoak, betebeharrak...) zein higiezinak (ondasun higiezinaren alokairua)- gehituzetik sortzen dena da. Ondoren, 2009-2014 epealdian kuadrillan sexuaren arabera batz besteko errenta pertsonalaren garapen ezberdinaren gaineko datuak dituen grafiko bat aurkeztuko dugu, emakumeen eta gizonen artekoan dagoen aldea ikusarazten duena. Arabako datuekin ere alderatu ditugu gure datuak.

62 Grafika: Batez besteko errenta pertsonalaren bilakaera, sexuaren arabera, Mendialdeko Kuadrillan eta Araban. 2009 eta 2013. (Geuk egina, Udalmapen datuak oinarri)



UDALMAPen datuen analisiak zera erakusten du:

- ✓ Orokorrean, kuadrillako batz besteko errenta pertsonalak gora egin du 2009-2014 epealdian, 636€ emakumeentzat eta 469 € gizonentzat. Araban gizonen errenta 615€ra jaitsi da eta emakumeena 109€ igo. kuadrillan errentaren igoerak Euskadiko eta Estatuko joera orokortuarekin talka egiten du. Horietan, krisi sozioekonomikoak familien errenta eskuragarriaren jaitsiera jarraitua ekarri du 2007tik.
- ✓ Alde garrantzitsua dago emakume eta gizonen batz besteko errenta pertsonalaren artean, bai Araban baita kuadrillan ere. 2014an Araban dago bretxa handiena -9.351€-, kuadrillan 7.496,83€koa den bitartean.

Dena den, azpimarratu beharra dago emakume eta gizonen arteko bretxa murriztu dela 2014an. 2009an probintzian 10.075€ra eta kuadrillan 8.113,50€ra heltzen baitzen. Araban gizonen errentaren galera dela eta eman da eta Arabako Mendialdean emakumeen errenta igo delako.


2.10 PREKARIETATEA ETA GIZARTE BAZTERKETA

2.10.3. Lanbideren diru-laguntzak: Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta Osagarriak


2017ko uztailan, Lanbideren datuen arabera, Arabako Mendialdeako 32 pertsonak jasotzen zuten diru-sarrerak bermatzeko errenta. Horietatik 11k Etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzen zuten eta beste 5ek Guraso Bakarreko Unitate osagarria. Sexuaren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen zutenetatik %59,4 emakumeak ziren.

Gainera, Guraso Unitate osagarriaren onuradun guztiak emakumeak ziren, eta Etxebizitzarako prestazio osagarriko onuradunen %45,5. Kolektiboetako buruzko datuei dagokienean, 6 pentsiodunak ziren, guztiak emakumeak. Jatorriari dagokionez, 5 pertsona baino gutxiago atzerritarrak ziren.


63. Grafika: DSBE hartzaileen banaketa, sexuaren arabera. 2017ko uztaila.
(Geuk egina, Lanbideko datuak oinarri)



Grafika 64. Osagarrien hartzaileen banaketa, sexuaren arabera. 2017ko uztaila.
(Geuk egina, Lanbideko datuak oinarri)



65. Grafika: Osagarrien hartzaileen banaketa, sexuaren arabera. 2017ko uztaila. (Geuk egina, Lanbideko datuak oinarri).



2.10 PREKARIETATEA ETA GIZARTE BAZTERKETA

2.10.4. Gizarte bazterketari buruzko datuen interpretazioa

Ikus dezakegunez, Arabako Mendialdeako kuadrillarentzat eskuragarri dauden datuen berrikuspen labur batek egiaztatu du pobrezia-aren feminizazioa fenomeno kezkarria dela, non genero faktore ezberdinek eta adina, gizarte klasea eta jatorria, besteren artean, bezalako beste aldagaiek ere eragina izan dezaketen. Izan ere, bazterketa eta pobrezia arriskuak ez du modu berdinean eragiten pertsona eta kolektibo guztiengan.

Gizonen gizarte rola euren lan izaerari estuki lotuta daude, eta langabezia egoera batek sozialki eta ekonomikoki baztertzera eramaten dezake. Emakumeen gizarte rola lan-merkatuari ere lotuta daude. Baina tradizionalki eremu erreproduktiboan esleitutako rola euren ahulgarritasun eta bazterketan eragin handia dute, adingabeen eta mendekotasuna duten adinekoen zaintza lanen pisu handiena euren gain hartzeak suposatzen duen aukeren galerak beraiengan eragin handiagoa duelako.

Baldintza horietan, prezio eskuragarrietan zerbitzu sozio-komunitarioen sare zabal bat ez egoteak emakumea “egokitzen aldagaia” izatea dakar, eta proportziorik ez duen ordaindu gabeko lan kopuru bat euren gain hartzea, genero ikuspegitik egindako bazterketa ekonomiko ugarietan salatu den bezala. Eta ez da harritzekoa pobrezia-tasa altuena duten etxeak ama bakarreko familiak izatea. Hau da, diru-sarrera egonkorak izateko zailtasunak dituzten amak, eta zaintza ardura eta lana

bateratzeko nahikoa baliabide lortzerako orduan zigortuak izaten dira. Gainera, larrialdi egoeretan laguntzeko gizarte sarerik ez dutenak, emakume migratuen kasuan bezala, adibidez, prekarizazioaren bazterketa egoera kronikoagora pasatzea oso erraza izan ohi da. Adibidez, 2012an ama bakarreko familiak EAEn benetako pobrezia pairatzen zuten familia guztien %14,9 ziren, “Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkestaren” arabera.

Horregatik, eta bazterketa arriskuan dauden emakume eta gizonen banatutako beharrak eta profilak ezagutzeko asmoz, garrantzitsua da kuadrillako pertsonen eskuratzen dituzten zerbitzu, laguntza eta prestazio ekonomikoen sexuen arabarako datu-bilketa egitea (kuantitatibo eta kualitatiboak).



2.11 AHALDUNTZEA ETA BERDINTASUN POLITIKAK




2.11 AHALDUNTZEA ETA BERDINTASUN POLITIKAK

2.11.1 Arabako Mendialdeako Kuadrillan Berdintasun politikaren ibilbidea

III. Berdintasun Foru Plana egitean hiru diagnostiko egin ziren, horietako bat koadrilen errealitatearen gainean berdintasun politiken garapenaren inguruan. Diagnostiko honek politika horien garapen maila baxua azpimarratu zuen.

Berdintasun politiken garapenean jauzi kualitatibo garrantzitsua izan da 2016an kuadrilla bakoitzean berdintasun teknikari bat kontratatzea. Kontratazio horren harira, 2016an “Berdintasun Diagnostiko aurrekoa” egin zen kuadrilla mailan. Horretan, sortu berri den kuadrillako Berdintasun Zerbitzuaren bidez emakumeen berdintasuna sustatzeko existitzen diren beharretara lehendabiziko hurbilketa egin zen.

2017an “Indarkeria Matxistaren egoerari buruzko Diagnostikoa” ere egin zen, AFAK finantzatutakoa. Horretan, kuadrillan arazo honek duen garrantzia hautemateko datu kuantitatibo eta kualitatiboak eta hari ekiteko behar zehatzak aztertu dira. AFAK 2017an ere Laia Eskola jarri zuen martxan, Arabako emakumeen berdintasunerako eta ahalduntzerako Eskola. Era berean, 2017an Emakunderen “emakume eta gizonen arteko berdintasunerako planak egiteko eta ebaluatzeko edota diagnostikoak egiteko beharrezko aholkularitza teknika ematera bideratutako Euskadiko Autonomia Erkidegoko udalerri, kuadrilla eta mankomunitateen diru-laguntza deialdian” aurkeztu zen kuadrilla. Horren bidez, lurraldeko emakume eta gizonen egoeraren diagnosia eta kuadrilla mailako Berdintasun eremuko I. Plana egiteko baliabide ekonomikoak lortu zituen.



Kanpezu berdintasun politikak garatzean aitzindari da, berdintasun plana (2016-2019) eta ordenantza (2014) baititu. 2017an Arraia-Maetzuko Udalak emakume eta gizonen egoeraren lehenengo diagnostikoa egin zuen.

2.11 AHALDUNTZEA ETA BERDINTASUN POLITIKAK

2.11.2. Berdintasunerako gobernantza

Diagnosticotik hau eta kuadrillako berdintasun I. plana egitearekin lortu nahi den helburuetako bat da berdintasun politiken zeharkakotasun printzipioan oinarritutako planifikazio estrategiko bat ezartzea, Arabako Mendialdeko kuadrillaren eta osatzen duten udal ezberdinen arteko harremanak, komunikazio bideak eta erabakiak hartzeko mekanismoak egituratzeko aukera ematen duen “genero arkitektura” batekin.

Helburu hau lortzeko lan egiturak, dinamikak eta moduak berrikusi dira, baita existitzen diren harremanak eta komunikatzeko moduak ere. Aldi berean, maila politiko eta teknikoan lan egiturak jarri dira praktikan, etorkizunean kuadrilla mailan berdintasun politiken garapena posible egiten duen genero arkitektura egonkortzeko hazia izango direnak.

Politikari, teknikari eta herritarrekin egindako lan saioetan ondorengo erronkak identifikatu dira:

- Udal estrategia lehenesten duten errotutako inertzia gaitzen dituen kuadrilla mailako estrategia indartu behar da.

- kuadrillako egitura organikoaren barruan sartzen diren lan espazio eta egitura berriak ezarri behar dira, hala nola: (1) tokiko eta kuadrillako berdintasun politiken erreferentzia funtzioa duen udalerri bakoitzeko ordezkari batek parte hartzen duen batzorde politiko bat; (2) modu koordinatuan genero zeharkakotasuna ezartzeko aukera ematen duen batzorde tekniko; (3) kuadrillako berdintasun politiken maila teknikoan erreferentzia diren udaletan irudi hori formalizatu; (4) maila geoGrafikan malgua eta birakorra den egitura ezarri, lan espazioak lurraldeko asoziazio ehunarekin eta emakumeekin egonkortzeko aukera ematen duena.

- Politikoki, berdintasun politiken inguruko sentsibilizazio eta gaitasuna handitzeko beharra identifikatu da.

- Teknikoki, teknikariek kuadrillako eta udaletako eremu ezberdinetan genero ikuspegia sartzeko beharrezko denbora izateko aukera ematen duen lan zamak berrikustea beharrezkoa da.

2.11 AHALDUNTZEA ETA BERDINTASUN POLITIKAK

2.11.3. Laia Eskola, Arabako emakumeen Berdintasunerako eta ahalduntzerako eskola

- Laia Eskola, Arabako emakumeen Berdintasunerako eta ahalduntzerako eskola da. 2016an sortu zen Lautadan eta 2017an gainontzeko koadriletara zabaldu zen. Emakumeen ahalduntze prozesuetan laguntzeko jarri zen martxan, euren parte-hartze sozio-politikoa indartzen duten tresna eta dinamiken bidez, berdintasunaren alde emakume eta gizonekin lan egiten den bitartean.
- Ekimen hau Koadrilen eta tokiko erakundeen, erakunde sozialen, mugimendu feministaren, emakumeen kolektibo eta elkartein inplikazioari esker jarri da martxan, eta Eskolan parte hartu nahi duten beste eragile guztiak ere gehitu nahi ditu.
- Berdintasuna aurrera egiten, gizartearen garapenean, kultura arteko elkarriketan, egituraketan eta lurralde orekan lagundu nahi du.
- Arabako Foru Aldundiaren IV. Berdintasun Planaren ildo estrategikoekin bat, jarduera programazio anitza eskaintzen du: tailerrak, ikastaroak, hitzaldiak edo konferentziak, irakurketa klubak, zine-foruma.
- Espazio hauetan identitateak, emozioak, gorputzak, maitasuna edo sexualitateak bezalako gaiak lantzen dira, baina baita soziopolitikoki eta ekonomikoki eragina duten gaiak ere, zalantzarik gabe guztiongan eragina dutenak: indarkeria matxista, erabakiak hartzeko espazioetan parte-hartzea, zaintza lanaren erantzukizun partekatua, kulturartekotasuna eta elkartasuna, edo ekonomia feminista.
- Arabako Mendialdeako kuadrillan Laia Eskola inauguratu zen 2017ko urriaren 21ean, “Emakumeen Ahalduntze Soziopolitikoa” jardunaldiaren bidez, Arraia-Maeztun. Jardunaldi honek emakumeen eragin soziopolitikoaren ildo estrategikoari erantzuten dio eta 2017ko azaroko Administrazio Batzarretako hauteskunderen testuinguruan kokatzen da.
- Azpimarratu beharra dago aurreko hauteskunderen datuen arabera, emakumeen Arabako Administrazio Batzarretako parte-hartze batz bestekoa %20koa dela, eta gizonena %80koa. Horregatik, jardunaldi honen helburuetako bat azaroko hauteskundeetan emakumeen parte-hartzea sustatzea da.

2.11 AHALDUNTZEA ETA BERDINTASUN POLITIKAK

Ondorengo taulan 2017an Laia Eskolaren barruan kuadrillan egin diren jarduerak azaltzen dira. Ikus daitekeen bezala, guztira 13 jarduera antolatu dira, adin guztietako emakumeei eta batez ere neska gazteei eta adinekoei zuzendutakoak.

Landutako gaiak hauek izan dira: zahartze aktiboa, autodefentsa, ahalduntzea, partaidetza eta hezkuntza partekatua. Irakurketa eta kirol eremuan ere jarduerak egin dira.

Tabla 27. Actividades realizadas en el marco de Laia Eskola 2017.

Ekintza	Udalerria	Emakumeei arreta	Gizonei arreta	Totalak
Laia Eskolaren aurkezpena eta Areatzako emakumeekin elkarrizketa	Bernedo	30		30
Autodefentsa feminista tailerra Maitena Monroy	Bernedo	12		12
Taller de nuevas tecnologías con Mentxu Ramilo	Bernedo			
Emakume berriak con Inma Merino	Bernedo	3		3
Neska gazteekin ahalduntze prozesua Beldur Barik	Bernedo	8		8
Indarkeria sexistarik gabeko gunea Emagin Elkartea	Arraia-Maetzu	40	10	50
Perkusio tailerra perkuneskekin	Arraia-Maetzu	10		10
Norma Vázquez-ekin solasaldia	Arraia-Maetzu	31	2	33
Ikastolako gurasoekin hezkidetza proiektua	Arraia-Maetzu	9	3	12
Gazte eguna alguna actividad con Emagin	Arraia-Maetzu			
Orientazioa mendian tailerra	o	9		9
Irakurle feministaren klubaBego Etayo	Cuadrilla	17		17
Emakume berriak Inma Merino	Cuadrilla	169	15	184

2.11 AHALDUNTZEA ETA BERDINTASUN POLITIKAK

2.11.4. Kanpezuko Udaleko udal ordenantza

Kanpezuko Udalak 2014an udal ordenantza bat egin zuen egiten diren politika eta ekintza guztietan genero ikuspegia barne hartzeko. Lehentasuna duen helburua da desberdintasunak ezabatzea eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea. Ordenantzak hauxe dio:

- Genero ikuspegia duten aurrekontuak: udal aurrekontuetan urtero ordenantza honetan aurreikusitako neurri eta funtzioak gauzatzeko bideratutako baliabide ekonomikoak esleitzeko konpromisoa, egonkortutako aurrekontu orokor osoaren ehuneko 0,01ekoa behintzat izan beharko dena.
- Berdintasun Zerbitzua sortu, eremu honetan garatzen diren ekintza eta programak sustatzeko. Era berean, Udaleko Sail guztiek euren jarduera eremuan diskriminazioa ezabatzea eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatu beharko dute.
- Udal organoetan ordezkaritza edo osaera orekatua bermatu.
- Azterketa eta estatistikak genero ikuspegiarekin egin.
- Hizkuntza eta irudien erabilera ez sexista komunikazio euskarri guztietan.
- Udal jardueran genero inpaktua: ordenantza proiektuen eta Administrazio jardunen proposamenen genero inpaktuaren aurretiko ebaluazioa aurreikusten da, emakume eta gizonen arteko berdintasunean edo desberdintasunean horien efektu potentzialak edo errealak ezagutzeko.
- Era berean, enpleguan, gaitasun eta formazio prozesuetan eta abarretan berdintasuna sustatzeko klausulak sortu dira. Bestalde, bateratzea sustatzeko klausulak ezarri dira.
- Hezkuntza partekatuaren, kirolaren, osasunaren eta kulturaren inguruan lantzeko xedapenak aurreikusten dira.
- Genero indarkeriarekin lotuta, ikerketa, prebentzio eta sentsibilizazio, formazio eta biktimen arreta eta babeserako neurriak azpimarratzen dira.

2.11 AHALDUNTZEA ETA BERDINTASUN POLITIKAK

2.11.5. Arraia-Maeztuko Udaleko Emakume eta Gizonen egoeraren Diagnostikoa

Dagoeneko aipatu dugun moduan, Arraia-Maeztuko udalerriak 2017an Arabako Foru Aldundiak finantzatutako herriko emakume eta gizonen egoeraren Diagnostikoa egin zuen. Ondoren, ondorio garrantzitsuenak adieraziko ditugu, Emakundek ezarritako lau ardatzen arabera:

1) Gobernantza

- Udalaren zabaltzea jaso da, maila politikoan, berdintasuna bermatzeko lan egiteari begira. Orain arte agenda politikoan egon ez den arren, aldaketarako asmoa dagoela esan daiteke.
- Datuak ez dira beti sexuaren arabera banatuta biltzen.
- Emakumeen parte-hartzea maila politikoan eta erabakiak hartzeko espazioetan altua da. Emakume hauen kokapenak aztertzen badira ere, botere postuetan gizonak daudela ikusi da.
- Udalean ez dira berdintasuna sustatzeko neurri zehatzak existitzen hizkuntzaren erabilera ez sexista, kontratazio-agirietan eta data garrantzitsuetako kanpaina zehatzetan berdintasun klausulak barne hartzea ez bada.

- Desberdintasun egoerak identifikatzeko zailtasunak daude. Aldi berean, Udalaren eremu eta sail ezberdinetan eta Arabako Mendialdeako kuadrillakoetan genero ikuspegia barne hartzeko moduan sakontzeko politikari eta teknikariak formatzen jarraitzeko beharra ikusi da (eta kasu batzuetan horrela eskatu dute udal langileek).

2) Balore aldaketa

- Orokorrean, emakumeek lan-baldintza okerragoak dituzte (soldata, jardunaldiak, ekonomia ezkutua...)
- Herrian eskualde osora zabaltzen den talde feminista bat dago: Lamingorriak, aldarrikapenak landu eta esperientzia trukaketan eta kontzientzia feministarako espazio eta jarduerak antolatzen dituen.
- Orokorrean, herrian antolatutako ekimenetan generoaren araberako banaketa mantentzen da: feminizatutako espazio batzuk eta maskulinizatutako beste batzuk existitzen dira.

2.11 AHALDUNTZEA ETA BERDINTASUN POLITIKAK

3) Gizarte antolaketan erantzukizun partekatua:

- Emakumeek gizonek baino gehiago aukeratzen dituzte jardunaldi partzialeko kontratuak.
- Gainera, emakumeek etxearekin eta zaintza lanekin lotutako lanez arduratzen dira batez ere. Beraz, aisialdirako denbora gutxiago dute.
- Kasu gehienetan, Udalak edo kuadrillak antolatutako ekimenetan ez dira aintzat hartzen bizitza pertsonala, familiarra eta lana bateratzeko beharrak.
- Ez da erantzukizun partekatuaren gaineko kontzientzia sustatzeko kanpainarik egin.

4) Indarkeria matxista:

• Arabako Mendialdeako Kuadrillako Gizarte

Zerbitzuek indarkeria matxista pairatzen duten emakumeak artatzen dituzte. Egokitzen jotzen den zerbitzuetara bideratu eta aholkatzen dituzte. Ez da tokiko koordinazio protokolorik existitzen.

- Indarkeria matxistaren aurkako diskurtsoa eremu politikoan, teknikoan eta harremanetan jarri garen eragile ezberdinek dute. Hala ere, maila guztietan inplikazioan sakontzen jarraitu behar dela uste da, batez ere politikoan.
- Haurren hezkuntza formal zein ez formalarekin lotutako eragileak inplikatze beharra ere azpimarratu da, etorkizunari begira klabe delako.

2.11 AHALDUNTZEA ETA BERDINTASUN POLITIKAK

2.11.6 Emakumeen asoziazionismoa kuadrillan

Arabako Mendialdeako kuadrillako emakume eta gizonen egoeraren Diagnostiko aurrekoan jasotako informaziotik abiatuz, emakumeez osatutako asoziazio eta kolektibo hauek identifikatu dira, euren ekintzen garapenean genero ikuspegia barne hartuta lan egiten dutenak:

□ **Mujer Campezana:** Asoziazio kultural gisa definitua. Bereziki Kanpezun egiten du lan. Arabako beste emakumeen elkarteekin irteerak eta topaketak egiten dituzte. Egun, euren ekintza propioak antolatzeaz gain, Udalak edo beste asoziazio batzuk sustatzen dituzten jardueretan parte hartzen dute, ospakizun ezberdinetan kolaboratuz. Jubilatuen elkartearekin ere kolaboratzen dute. Oroimenezko egunen inguruan jarduerak egiten dituzte, martxoak 8 adibidez.

□ **Lamingorriak:** Ofizialki asoziazio gisa eratuta ez dagoen emakume talde feminista da, eta kuadrilla mailan egiten du lan. Gainera, kuadrillan ondoren adierazitako asoziazioak daude:

- EGA asoziazioa
- AGUAKE asoziazioa
- Antoñanako Gizarte etxea
- SARREA asoziazioa

2.11 AHALDUNTZEA ETA BERDINTASUN POLITIKAK

2.11.7. Berdintasuna sustatzeko lortutako baliabideak

2011tik 2016ra berdintasuna sustatzeko baliabide ekonomiko ezberdinak lortu dira Arabako Mendialdeako kuadrillan. Dena den, aipatu beharra dago baliabide hauek kuadrilla osatzen duten sei udalerrietatik bietan zentralizatu direla batez ere: Kanpezun eta Arraia-Maeztun.

Kuadrilla mailan, berdintasuna sustatzeko baliabideak lortu ziren 2011 eta 2015ean. Ondoren, martxan jarritako ekimenen titulua azpimarratuko dugu, zein urteetan gauzatu ziren eta lortutako kopuru ekonomikoak:

Tabla 28. Recursos económicos para la promoción de la igualdad en la cuadrilla Montaña – Alavesa. 2011 y 2016 (Elaboración propia a partir de información de la Cuadrilla Montaña Alavesa)

URTEA	KUADRILLA/UDALA	IZENBURUA	ZENBATEKOA
2011	Mendialdea	Garapen pertsonala eta landa emakumearen garapena.	7.200,00€
2012	Kanpezuko Udala	Kanpezuko Berdintasun Plana	7.470,04€
2013	Kanpezuko Udala	Kanpezu Berdintasunaren alde	8.301,62€
2014	Kanpezuko Udala	Ordenantza	10.603,53€
2015	Mendialdea	Berdintasunerako programa	5.143,50€
2016	Kanpezuko Udala	I Berdintasun Planaren garapena eta jarraipena	9.000,00€
2016	Arraia-Maeztuko Udala	Berdintasun diganostikoaren proposamena	6.468 66€





PARTE 3. KUADRILLARI BEGIRADA



3.1 EMAKUMEAK ERABAKIAK HARTZEKO EREMUETAN SARTZEA

3.1 Arabako Mendialdeako Kuadrillako egitura organikoa


Arabako Mendialdeako kuadrillako egitura organikoa Presidentziak eta Presidentzia ordeak osatzen du, kuadrillako Batzar batekin batera, osatzen duten udalerrien partaidetza eta kontsulta organo bezala osatua, eskualdeko zerbitzuak administratzeaz gain.

Batzarrak udalerriak biztanleen arabera ordezkatzeko dituen 10 batzarkidek osatuta dago:

- Arraia-Maeztu: 2
- Kanpezu: 3
- Bernedo: 2
- Lagran: 1
- Urizaharra: 1
- Harana: 1

Gainontzeko egitura Udalek osatzen dute, bat kuadrillako udalerri bakoitzeko, horietako batek udalerrien beharrei modu independentean erantzunez.

66 Grafika: Mendialdeko Kuadrillako Batzarraren osaera, batzarkideen sexuaren eta udalerriaren arabera (Geuk egina, Arabako Foru Aldundiaren webgunea oinarri)



Kuadrillako Presidentzia eta Administrazio Batzarren osaeratik haxe ikusi da:

- Emakume bakarra egon da Kuadrillako presidente 1990tik, eta kargua errepikatu zuen. Presidenteen %77 gizonak izan dira.
- Kuadrillako presidentzia-ordetza maskulinizatutako organoa da gaur egunera arte.
- Lagranen bakarrik egon da Administrazio Batzarretan presidentzian emakume kopuru handiena (%67).
- Urizaharreko Administrazio Batzarretako sei presidenteak gizonezkoak dira. .

3.1 EMAKUMEAK ERABAKIAK HARTZEKO EREMUETAN SARTZEA


29. Taula: Kuadrillako presidentzian garapena. (Guk egina Mendialdeko Kuadrillako informaziotik)

	Lehendakaria	Lehendakariordea
1990-1991	Emakumea	Gizona
1991-1992	Gizona	Gizona
1992-1995	Emakumea	Gizona
1995-1999	Gizona	Gizona
1999-2003	Gizona	Gizona
2003-2007	Gizona	Gizona
2007-2011	Gizona	Gizona
2011-2015	Gizona	Gizona
2015-Act.	Gizona	Gizona

Kuadrillako Presidentzia eta Administrazio Batzarren osaeratik haxe ikusi da:

- Emakume bakarrik egon da Kuadrillako presidente 1990tik, eta kargua errepikatu zuen. Presidenteek %77 gizonak izan dira.
- Kuadrillako presidentzia-ordetza maskulinizatutako organoa da gaur egunera arte.

67. Grafika: Udal-alkatetzen osaera, sexuaren arabera. (Geuk egina, Mendialdeko Kuadrillako informazioa oinarri)




- Lagranen bakarrik egon da Administrazio Batzarretan presidentzian emakume kopuru handiena (%67).
- Urizaharreko Administrazio Batzarretako sei presidentek gizonezkoak dira.


3.1 ACCESO DE LAS MUJERES A LOS ÁMBITOS DE DECISIÓN

3.2 Politikariak


68. Grafika: Udal-alkatetzen osaera, sexuaren arabera. (Geuk egina, Mendialdeko Kuadrillako informazioa oinarri)



58. Grafika: Zinegotzigoen osaera, sexuaren eta udalerriaren arabera. (Geuk egina, Mendialdeko Kuadrillako informazioa oinarri)



69. Grafika: Udal-zinegotzigoen osaera, sexuaren arabera. (Geuk egina, Mendialdeko Kuadrillako informazioa oinarri)



Politikarien osaerari dagokionez:

- ✓ Kuadrillako alkatetzen %67 gizonen osatuta dago, Bernedo eta Kanpezu emakumeek gidatutako bi udalerriak dira.
- ✓ Kuadrillako 32 zinegotzietatik %33 bakarrik dira emakumeak.
- ✓ Kuadrillako sei udalerrietatik Kanpezun eta Arraia-Maeztun bakarrik da zinegotzigoen sexuen araberako banaketa berdina, edo emakumezkoen ordezkari handiena duena, hurrenez hurren.
- ✓ Gainontzeko udalerrietan, zinegotzigoen %67 baino gehiago gizonen osatzen dute, eta osorik Haranan.
- ✓ Kanpezun Berdintasun zinegotzigoa dago.

3.1 ACCESO DE LAS MUJERES A LOS ÁMBITOS DE DECISIÓN

3.3 Teknikariak

Kuadrilako osaera politikoa oso maskulinizatua dagoen bezala, lanpostu teknikoetan Kuadrilatik kudeatzen diren zerbitzuetan erabat ezberdina da: guztiak emakumeek egiten dituzte, zerbitzu soziokulturalak izan ezik, teknikaria gizon bat da eta.

70. Grafika Kuadrillako teknikariak osaera, sexuaren arabera. (Geuk egina, Mendialdeko Kuadrillako informazioa oinarri)

